# ttipi-ttapa

**195.** zenbakia • 1996ko abenduak 5 • **XV.** urtea



# Nolako ondorioak ekarriko ditu CSIren pribatizazioak?

*1.600 langile inguru enplegatzen ditu gaur egun Lesaka, Zalain eta Legasako faktorien artean*

Espainiako Gobernua ondasun publiko zenbaiten pribatizazioa gauzatzen hasia da dagoeneko, eta prozesu horretan dago CSI (Siderurgia Integralaren Korporazioa). 1998rako pribatizazio prozesua bukatua egotea espero dute agintari espainiarrek, bainan lehenagotik 7.700 milioi Pta. inbertitu nahi dute enpresa saneatzeko. Lantegi hau Nafarroako mendialdean dagoen haundiena da. Hiru faktorien artean 1.500 langile inguru enplegatzen ditu zuzenki, eta bistan denez, ikaragarrizko inportantzia du zona osoko ekonomian. ☞ 4

**6** Iritzia: **CSIren pribatizazioa langileen ikuspegitik**

**28** Kirolak: **Nafarroako aizkolarien txapela Larretxearentzat**

TTIPI-TTAPA honekin batera:
**Etxetik Plazara**
IKAko euskaltegiek argitaratzen duten aldizkari didaktikoa.



# E Z K A L O

Jose Antonio Elizondo Jauna • API 129

**INFORMAZIOA:** 451518 (Doneztebe) • 23 48 30 (Iruñea) • 908. 77 76 96 (Mugikorra)

***Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero***



**Bera.**
Legia karrikako Eguzki kafetegia saldu edo eskualdatzen da, baita bere gaineko bi etxebizitza eta ganbara eraiki gabeak ere. Prezio negoziagarria.

**Etxalar.**
Etxebizitza salgai. Eguzkitsua. Sukalde ekipatua, 3 logela, bainua eta egongela. 9.300.000 pta.

**Doneztebe.**
- Pisua salgai. 6.500.000 pta.
- Apartamendu duplexak salgai.
- Vliesena parean bajera salgai, ostatua jartzeko egokia.
- Goxokidenda alokatzen da.
- Pabilioia alokatzen da.
- 90 m²ko bajera eta 150 m²ko baratzea salgai.
- Jatetxe-ostatua alokatzen da.
- Etxebizitza mobleztatua, kalefakzioarekin errentan eman nahi da. 45.000 pta / hilabetean.

**Legasa.**
Pisua salgai. 5.900.000 pta.

**Gaztelu.**
Zortzi lagunendako etxea errentan eman nahi da.

**Urrotz.**
Zortzi lagunendako baserria alokatzen da. 50.000 pta/hilean.

**Ituren.**
- Bizitzen jartzeko moduko borda errentan eman nahi da.
- Borda salgai. 1.500.000 pta.

**Donamaria.**
Borda errentan eman nahi da.

**Elgorriaga.**
Etxebizitza eta etxea errentan eman nahi dira.

**Labaien.**
Etxebizitza mobleztatua errentan eman nahi da. 30.000 pta/hilean.



**Sunbilla.**
Etxea salgai. Bi familiendako egokia. Prezioa negoziagarria.

**Irurita.**
- Lur eremua duen borda salgai.
- Etxebizitza mobleztatua errentan eman nahi da. 40.000 pta.
- Pabilioia alokatu edo saldu nahi da, errepide ondoan eta lur eremu industrialean.

**Erratzu.**
Lur eremua eta argia duen borda salgai.

**Arraioz.**
Lur eremua eta argia duen borda salgai.

**Elizondo.**
- Baserria salgai. 6.500.000 pta.
- Etxebizitza amueblatua salgai. 9.800.000 pta.

**Ziga.**
Borda salgai.

**Berroeta.**
6.000 m²ko lur eremua eta bizitzen jartzeko moduko borda, argi indarrarekin salgai.

**Iruñea.**
Baditugu etxebizitzak salgai eta errentan emateko.

**Otsagi.**
Bizitzen jartzeko moduko borda salgai.



**Bera.**
Kirol denda eta mertzeria salgai (IRAZOQUI). 96 m², 3 eskaparate, bizikleta tailerra bere atearekin. Prezioa negoziagarria.

**Betelu.**
- Etxea baratzearekin salgai.
- Baserria, lur eremuarekin salgai.
- Eraikigarria den lur eremua salgai.

**Elbete.**
Bizitzen jartzeko moduko etxea garajearekin salgai.

**Lekaroz.**
Plazan dagoen etxe bat salgai.

**Igantzi.**
Etxebizitza amueblatua, kalefakzioa, garajea eta baratzearekin errentan eman nahi da. 40.000 pta/hilean.

**Artaxona.**
Etxea baratzearekin salgai. 6.500.000 pta.

**Zubieta.**
Estreinatu gabeko etxebizitza kalefakzioarekin salgai.

**Leitza.**
- Herrigunean dagoen luxuzko etxebizitza salgai.
- Etxebizitza, sukalde muntatua eta garajearekin salgai. 9.800.000 pta.
- Lur eremua, zerrategi ttiki bat eraikitzeko baimenarekin salgai.



**Bera.**
- Etxegileak, zuzenean, apartamendua saldu nahi du. Aszensorea. Sukaldea, kalefakzioa eta aparkaleku pribatua. 9.500.000.
- Komertziorako bajerak salgai. Prezioa negoziagarria.

**Errazkin.**
Etxea baratzearekin salgai. Berrikuntzak behar ditu. 6.500.000 pta.

**Baraibar.**
Etxea bere borda eta eraikigarria den lur eremuarekin salgai.

*Etxeak, baserriak, bordak, lur eremuak, etxebizitzak, villak, pabilioiak erosiko genituzke Baztan, Bidasoa eta Malerrekan.*

XXX

*Tasazioak egiten ditugu.*



**Oronoz-Mugairi.**
Pabilioiak salgai. 6,30 metroko altuera. Gaineko pisua eraikitzeko egokia. Isolatuak. 100 m². 6.000.000 pta.

# ALMANDOZ

## 40 urte bete dira



## Laguntzaileak:

**EHNE**

**LAB**

**EHE**

**AEK**

**Baztandarren Biltzarra**

**Xorroxin**

**Baztango Mendigoizaleak**

**Doike Euskara Taldea**

**Baztango Gazte Asanblada**

**Manifestaziora autobusez joan ahal izateko, izen ematea honako toki hauetan egiten ahal duzu:**

**Xorroxin Irratia (Tfnoa. 581226)**

**Zubipunta Ostatua (Erratzu)**

**Taska (Arizkun)**

**Intza Ostatua (Elizondo)**

inaugurazioa aski pozik ospatu zuen gizona.

**Obraren xehetasunak**

Lehengo eliza ttiki xamarra ari zen gelditzen, eta pareta



**Argazki hauek duela zazpi urte ateriak dira, Ramón Apezetxea apezari eta Joakina Etxabarri serorari egin zitzaien omenaldian.**



# Eskualdeko lantegirik haundiena pribatizatzeko prozesua abiatua da

**«Orain arte administrazio publikoaren ondare zen CSI esku pribatuetara pasatuko da urte terdiren buruan eta Frantziako USINOR-SACILOR multinazionalak ditu aukera gehien erosle berria izateko. Bitartean, akzioen banaketa finkatzeko negoziaketek aitzinera segitzen dute.**

***Gobernu espainiarra ondare publiko zenbaiten pribatizazioa gauzatzen hasia da dagoeneko. Prozesu horretan dago CSI enpresaren (Siderurgia Integralaren Korporazioa) zati haundi bat.***
***Gauzak horrela, lehen "Laminaciones de Lesaka" zena 1998ko martxoa baino lehen multinazional bati saldu nahi diote. CSI Espainia mailan siderurgi arloan dagoen enpresarik garrantzitsuena da, Baztan Bidasoan 1.500 langile enplegatzen dituena. Pribatizatze prozesu honek kezka eta erreakzio ugari ekarri du, ezin baita ahantzi eskualdeko lan sektorearen ardatza dela CSI gaur egun.***

1998ko udaberria da CSIren pribatizazioa burutzeko Espainiako Industri Agentziak markatu duen azken epea. Atzerriko multinazional bat izanen litzateke CSI-ko (Siderurgi Integralaren Korporazioa) akzioen gehiengoaren jabe berria eta USINOR-SACILOR frantziarra da, dirudienez, aukera gehien dituen taldea. Hala ere ez da guztiz baztertua sektore bereko bertze europear erraldoia, BRITISH STEEL, ez eta japoniar sozio baten etorrera.

TESTUAK:
**ASIER GOGORZA**

Gaur egun Nafarroan pribatizatu gabe gelditzen den enpresa bakarrenetakoa dugu CSI, 100 langiletik goiti dituzten enpresen artean behintzat. Gure zonaldean 3 planta ezberdin daude, Legasan, Zalainen eta Lesakan kokatuak.

## Saneamendua eta konpetitibitatea

Espainiako Industri Agentziako lehendakaria den Francisco Pradak berriki azaldu duenez, hurrengo martxorarte

998ko udaberria da CSIren pribatizazioa burutzeko Espainiako Industri Agentziak markatu duen azken epea. Atzerriko multinazional bat izanen litzateke CSIko (Siderurgi Integralaren Korporazioa) akzioen gehiengoaren jabe berria eta USINOR-SACILOR frantziarra da, dirudienez, aukera gehien dituen taldea. Hala ere ez da guztiz baztertua sektore bereko bertze europear erraldoia, BRITISH STEEL ez eta japoniar sozio baten etorrera. Gaur egun Nafarroan pribatizatu gabe gelditzen den enpresa bakarrenetakoa dugu CSI, 100 langiletik goiti dituzten enpresen artean behintzat. Gure zonaldean 3 planta ezberdin daude, Legasan, Zalainen eta Lesakan kokatuak.

### Saneamendua eta konpetitibitatea

Espainiako Industri Agentziako lehendakaria den Francisco Pradak berriki azaldu duenez, hurrengo martxorarte 5.200 milioi inbertituko dira CSIk Nafarroan dituen lantegien konpetitibitatea segurtatzeko.
Inbertsio plan honekin jarraituz bertze 2.500 milioi pezetako aurrekontua aipatu zuen Pradak saneamenduarekin bukatu eta enpresa salgai paratu ahal izateko.

### Akzioen banaketa

Lesakako lantegira egindako bisitan Pradak argi utzi nahi izan zuen CSIren jabetza ez zela bere osotasunean nagusi bakarraren kontrolpean geldituko, estatuak berak ere akzioen zati ttiki bat mantenduko lukeelarik. Zentzu honetan Nafarroako Gobernuko industri kontseilaria den Ramón Bultok adierazi duenez, *«arau batzuk paratu behar dira, pribatizazio prozesuaren ondorioz enpresa sozio bakar baten esku eror ez dadin eta erabakiak unilateralki har ez daitezen».*
Sindikatuetatik ere izan da gai honi buruzko azalpenik. Horrela, aipatzekoa da 'Laminaciones de Lesaka'-ko enpresa komiteak, Enrike Lopez lehendakariaren bitartez pribatizatze proiektuan parte hartu ahal izatea eskatu duela.

### Alderdi politikoen erreakzioak

Bertzalde, HBko parlamentaria den Adolfo Araizek begi txarrez ikusten du CSIren pribatizazioa,




## BALORAZIOAK

### ☞ Udalak

#### Ez dezatela fabrika erosi gero lanpostuak murrizteko

Urriaren 22an Bertizen eskualdeko alkateek Sanz lehendakariarekin izan zuten bileran CSIren pribatizazioa izan zuten mintzagai, bertzeak bertze. "*Ez dezala inork fabrika erosi gero ixteko edo lanpostuak murrizteko*" eskatu zioten gobernuari. Gure zonaldean aurkitzen diren hiru fabriketatik, lanpostuei dagokionean, Lesakako eraldatuen plantak izan lezake etorkizunik beltzena, pribatizatzearekin batera teknologia berriak sartzeko asmoa baitago, bertako langileek betetzen duten funtzioa ordezkatuz. Beraz, lanpostu horiengatik kezkatzeko arrazoirik ez zaie falta udalei.

### ☞ Sindikatuak

#### ELA

##### Negoziazioak bukatzean ikusiko dugu zer egin

Guzti honen jarraipena kanpotik egiten ari direla aitortu digute ELA sindikatutik. *«Negoziaketak bukatu eta partizipazioen banaketa finkatzen denean agertuko dugu gure posizionamendua baina bitartean aiduru gaude»*izan da enpresa komiteko lehendakari eta ELAko kide den Enrike Lopezek jakinarazi diguna. Pradarekin izandako bileran ELAk azaldu zion *«ez dutela onartuko gai honen inguruan Madrilen hartutako edozein erabaki, nahiz CCOO edo UGT sindikatuekin eztabaidatua izan, hemen ELA eta LABek dutelako errepresentazio gehien».* Pribatizatze prozesuan USINOR-SACILOR frantziarrekin batera negoziaketetan parte hartzen ari den bertze talde bat aipatzen dute ELAkoek, CELSA enpresa katalandarra hain xuxen.

#### CCOO

##### Kapitalaren %51 publikoa

Pribatizazioaren aurkako jarrera agertu arren ez du kaltegarri ikusten kapital pribatuaren sarrera, beti ere, %51 baino gehiago administrazio publikoaren esku baldin badago.

#### LAB

##### Multinazionalek ez diete hemengo beharrei begiratuko

*«CSIren pribatizazio prozesua aspaldixko hasi zuen PSOEren gobernuak eta PPk abiadura gehitu eta forma zertxobait aldatu du, zatika beharrean CSI osoa blokean pribatizatzeko asmoa agertuz».* Horrela mintzatu zaigu Julen Mitxeltorena, LABek Lesakako plantan duen ordezkaria. Pribatizazioaren aurkako beraien jarrera argitu ondotik, eritzi hau azaltzen du multinazionalen inguruan: *«Interes ekonomikoak bilatzen dituzte soilik, sozialetan erreparatu gabe».* Bertzalde, *«ez dute iraunkortasun garantia minimorik eskaintzen eta kontutan hartzen badugu Nafarroako industriaren gehiengoa multinazionalen menpe dagoela, hori Herri baten eraikuntzarako sobera hipotekatzea da»* LABen eritziz. Sindikatu honen helburua, *«Euskal instituzioek planta horien etorkizunean parte hartzea»* litzateke, *«herri eraikuntzarako sektore garrantzitsua baita».* Azkenik, *«buzoa jantzten dutenekin errespetu gehiago izatea eta erabakiak hartzeko orduan zintzotasuna»* eskatu du Mitxeltorenak.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.300 ALE

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91
**Internet:**
http://www.encomix.es/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi@encomix.es
**e-mail:**
ttipi@mail.sendanet.es

**uzendaria:** Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Karnele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor rozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** maia Goia. **Erredakzio taldea:** ello Apezetxea, Juainas Paul, ristina Boan, Bittori Telletxea. **erriemaileak:** Joseba Azpiroz, steban Arozena, Juana Mari aizar, Ainhoa Mutuberria, Iban asi, Txema Aldabe, Patxi Otxanorena, Ixabel Maia, Josune Etxeeste, Pablo Mendiburu, Joseba garabide, Alizia Olaizola, Marari Etxenike, Koro Irazoki, Miel Gerendiain, Jacqueline, Eliabet Iturria, Garbiñe Maiz, Osar Txoperena, Pello Apezetxea, itor Arozena, Kristina Boan. **olaboratzaileak:** EHNE Nafaroa, Mikel Bezunartea, Joxe Jaier Etxeberria...
**nprimategia:** Graficas Ona.
***tipi-ttapa***k ez du bere gain harzen derrigorrez, aldizkarian adieazitako erranen eta eritzien eranzukizunik.
**rakunde Laguntzaileak:** Bea, Leitza, Goizueta, Areso, Bazan, Urdazubi, Zugarramurdi eta arako udalak, Bortzirietako Eusara Mankomunitatea, Malerreako Zerbitzu Mankomunitatea, ugarramurdiko Akelarre Elkarea...

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**



GAURKOTASUNEKO GAIA

# CSI lantegiaren pribatizazioa langileen ikuspegitik

## Produkzioa mantentzea da garrantzitsuena



Martin GARDE
CSIko langilea.Gartzain

Ez dut uste pribatua edo publikoa izateari hainbertze begiratu behar zaionik, produkzio indizeak bere hortan irauten baldin badute behinipin. Orain arte sektoreko bertze enpresa pribatuekin konpetitzea lortu dugu eta horrek erran nahi du merkatuak eskatzen duen maila badagoela.

Langilegoari dagokionean, erran behar da produkzioa hagitz lotua dagoela ebentual edo noizbehinkako langileekin. Gaur egun ebentualak kendu ezkero zaila izanen litzateke fabrikak funtzionatzea. Horregatik pentsatzen dut langile kopurua ez dela aldatuko.

Momentuz, sistema berriari begira berrestrukturaketa egin da eta oraindikan teknikoki lortu ez den arren modernizatze bidean pausu batzuk eman dira. Pribatizazioaren gaia maila politikoan aztertu beharko litzateke, baina lan kontuan produkzioa mantentzea da garrantzitsuena, merkatuan konpetitzen segitzea, alegia.

## Errestrukturazioa etorriko dela argi dago



J. Joakin ERREGERENA
CSIko langilea. Ituren

CSIren pribatizazioaren ondorioz, langileagoaren errestrukturazioa etorriko dela argi dago nere ustetan. Alde horretatik langileek orain baino seguridade guttiago izanen dute, batez ere Lesakako Plantan. Enpresa berri batek fabrikaren gidaritza hartzen duenean zahartuta dauden makinak aldatu, produkzio jautsi eta langile kopurua murriztuko dutela susmatzen dut.

Aurtengo produkzioaren balantzeak, tranpa bat gordetzen ote duen ere pentsatzen dut, batez ere itxura ona emateko, erosle posibleei begira.

Bertze alde batetik, PPk CSI guztia blokean pribatizatzeko segitzen duen politika PSOErena baino egokiagoa dela iduritzen zait. Horrela, enpresa kanpotarrek, berez goxoki bat den Sare Komertziala erosteko, bertze gainontzeko atalak ere erosi beharko dituzte. Sare Komertziala da CSIren atalik indartsuena, merkatua ongi finkatua duelako. Nere ustez, sarearen bila ibiliko lirateke interesaturik dauden erosleak, eta produkzioan izan dezaketen interesa bigarren plano batean geratuko litzateke.

## Baikorra izan nahi eta alde onik ezin aurkitu



Joseba IGARABIDE
CSIko langilea. Erratzu

Pribatizazioaren afera honetan etorkizuneko arazo bat ikusten dut nik. Gaur egun fabrikan lanean gaudenok, modu batera edo bertzera, lanpostua segurtatua dugu bainan ez zait iduritzen jende berria hartuko dutenik. Alderantziz, fabrika haundiak ttikitu eta berrestrukturatzen ari dira. Gainera, multinazionalek etekinei bakarrik begiratzen diete, lanpostuak sortu eta eskualdea zaintzea ez zaie ardura.

Estatuak dituen enpresa haundi guziak saldu nahi dituzte, horretarako diru publikoarekin saneamendua egin eta gero. Bertzalde, ez dut uste sindikatuak arazo honi aurre egiteko gai izanen direnik, gehienak klientelismoan erori baitira, liberalizazioa erabat nagusituz.

Hemendik aintzinera, langilea makinaren zati bat gehiago bezala kontsideratua izanen da nere ustetan.

**ARTEKARI**
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**
• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

**IRUÑEA:**
• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
**Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta

## BOTA BERTSOA



### *Jose Mari Bakeroren omenez*

**Esteban AROZENA**

Doinua: Xabier Leteren 'Habanera'

1

*Yandenean jaioa da*
*honetan ez nabil oker,*
*bere aurretik bazitun*
*beste lau senide eder.*
*Joxe eta Lurdesentzat*
*kopuru hau ez zen ezer*
*ta hamaikako taldea*
*osatua zuten laister.*
*Irisarriko frontoian*
*lenengo ostiko ta laster*
*geroztik ikusi ditu*
*munduko hainbeste bazter*
*Europa osoan daude*
*bere argazki ta poster*
*hori guztia lortu du*
*Lurdesen taloei esker.*

2

*Bartzelonako sardanaz*
*jadanik aspertu denez*
*hiru urtez biziko da*
*rantxerak ongi entzunez*
*muntai ikaragarri bat*
*egin da bere omenez*
*"katalanaz ongi daki"*
*Jordi Pujolek esanez.*
*Helburu berrien bila*
*aspalditik zebilenez*
*Ameriketara doa*
*denei aurre eginez*
*gure Mexiko zaharra*
*berkonkistatzeko planez*
*Hernan Cortesek armaz ta*
*Bakerok gizatasunez*

## IRAKURLEAK MINTZO

**Igantziko mokoluzeei:**

Harriturik gelditzen ari gara gazteen kontra duzuen jarrera horrekin. Azken bolada honetan izugarrizko esamesak entzuten ari gara gazteen kontra; kontzertua dela eta ez dela, eta Zahar-Etxean izan zen lapurketa dela eta ez dela. Batez ere azken honen arrazoiarengatik idatzi dugu hau, eta zuengana zuzentzen gara (zuengana erraten dugunean, mingaina hainbertze astindu duzuenak eta oraindik astintzen jarraitzen duzuenarengatik ari gara, badakizue nor zareten) jakin dezazuen Igantziko gazte errugabe honen alde eginen dugula momentu guztietan. Bai, errugabea da, eTa denak badakizue horrela dela. Zuen helburu bakarra jendea umiltzea eta mintzea dela erakutsi duzue. Ikusia dago ezer jakin gabe solastea gustokoa duzuela, ikusia zuen errespeto falta, heldutasun falta, zuen zentzugabekeria. Gazte honek eginkizun haretan parte hartu zuela ziurtzat hartzea ez da bidezkoa. Zuk ikusi zenuela erraten duzu, nola erran dezakezu hain seguru? Ez zara zuzen jokatzen ari. Nola demostratu orain errugabea dela?, nola kendu gainetik jarri diozuen ospea? Gure eta bere aldetik egin beharrekoa egin dugu, eta erran beharrekoak erran, baina ez zaizkigu zuei bezala hitzak soberan gelditu.

IGANTZIKO GAZTE TALDE BAT

**Lurraren Egunean ikusitakoak**

Urriaren 27an, Beran ospatutako Lurraren Egunari buruz irakurri ditudan kronikatan (Egin, ttipi-ttapa...), aipatu gabe geratu diren gauza pare bat kontatzeko idazten dut.

Alde batetik, aipatu nahi nuke egun osoan zehar "Erausian" taldekoek egindako lana eta bereziki bertaratu ziren artisau eta erakuslei eskeinitako karteltxoa, nun adierazten zen erosle edo ikusleekiko harremanak euskaraz izaten ahal zirela. Oraindikan hedatu xamar dauden zenbait hizkuntz jarrera aldatzeko lagungarri izanen zelakoan nago.

Bertze aldetik, herriko presoek ere nolabaitere egun horretan partehartzaile izan zirela. Kalean zegoen ziega edo "txaboloak" adierazten baitzuen nolako baldintzatan biziarazten dituzten urteetan eta urteetan, eta hori nahikoa ez balitz, bere herritik ehundaka kilometrotara urrunduak bere senditartekoak ere zigortuz.

Seguraski aipamena merezi zuten bertze gauzak ere izanen ziren, baina nik ikusi eta aipagarritzat hartu nituenak kontatzen dizkizuet.

IÑAKI GOGORZA (BERA)

**OHARRA:**

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero,* **ttipi-ttapa***k bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*




LESAKA



# APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
**DONEZTEBE**

KOLABORAZIOAK

☞ **Patxi URRUTIA** *Amaiurtarra*

# Ustelkeria Nafarroan



Bakoitzari berea. Hau da segurik gure lurraldean erraten dena. Eta ez bakarrik erran, baita egin ere. Nirea ez dena ez dut behar, baina nirea dena, ez nazala inork kendu. Tratuan ere hitz emana, erraten denean, denok berehala ulertzen dugu.

Gure herrietan gertatzen da hau. Baina ez da berdin Nafarroa osoan. Berriki hontan, gure Lehendakariak ere hitza ez zuen bete. Berak ustelkeriarekin zerikusirik ez zuela agindu zuenean, guk denbora aunitz gabe, hori egia ez zela ikasi baikenuen. 200 milioi pezetako iruzur beltz batean begarrietaraino sartua baitzegoen. Orain berriz, bere alderdiko burua denak, Nafarroan, adierazten digu alderdiko finantzaketak ez duela ezer ikustekorik Suitzako banketxetan, bere alderdikideei aurkitutako kontu eta diru zikinekin. Badirudi honen hitzak ere ez duela aunitz balio. Suitzako banketxe batean aurkitutako kontuen diruarekin ordaindu zen PSN-k CIES-i eskatutako inkesta, 13 bat milioi, eta inkesta hori alderdiko kideek ezagutzeko aukera guztiak izan zituzten, baita ezagutu ere. Honen hitzak ere ez du aunitz balio.

**Urralburu, Aragon, Otanok gaizki sakeleratuak beren egiazko jabeei itzuli behar diete, Nafarroako biztanleei alegia. Hori gertatu arte gure begitarte txarra eskeiniko diegu.**

Eta orain, xikanan harrapatu ondoren, tontoarena egin, eta beste alde batera begiratzen dute zuztuka. Guk, berriz, gauzak horrela ezin utziz. Honelakoek, gure tartean bizitzeko asmoa baldin badute seurik, gaizki irabaziak itzuli egin beharko dituzte Urralburu-Aragon-Otanok, bakoitzari berea, honi jarraituz, gaizki sakeleratuak beren egiazko jabeei itzuli behar diete, Nafarroako biztanleei alegia. Hori gertatu arte gure begitarte txarra eskeiniko diegu.

☞ **Alfredo ZUGARRAMURDI** *Doneztebeko zinegotzia eta alkate izana*

# Zonaldeko etorkizun ekonomikoa eta errepideen egoera



Gaur egun dugun industri arloko etorkizuna kilikolo dago (baliteke pribatizazioak izatea, enpresa ttiki eta ertainek arazoak dituzte, ostalaritza sektorea betetzen hasia da, iniziatiba pribatua hagitz urria da, hor dago gazte langabezia, emakumezkoek lan-munduan sartzea ez dute erraza...). Egoera honi aurre egiteko gure lana hobetzeaz gain bertze irtenbide batzuei ere ekin beharko diegu.

Gure kokaleku geografikoaz ezin gara, inolaz ere, kexu izan: Iruña, Donostia eta Baiona 50 km. baino hurbilago dauzkagu; 'Ardatz Atlantikotik' gertu bizi gara eta hau, Europako ate eta bidea izanik, arras garrantzitsua da. Itsasportuak, trenbideak, eginen den euskal 'Y' edo 'H'a, autobide sarea... ezin ditugu alde batera utzi. Baldintzok, errepideak egokituz gero, inbertsio berriak egiteko eta daudenak hobetzeko abiapuntu ezin hobean jartzen dute gure eskualdea. Inbertsioak erakarri behar ditugu Iruña, Irun eta Europa lotuko lituzkeen ardatz ekonomiko bat nolabait sortuz. Lehentasun haundiko irtenbideetako bat garraiobideak erraztea izanen da eta, horrela, urruntasunak laburtu, pertsona eta gauzen garraioa hobetu eta ziurtatu; lana erreztu eta kosteak murriztu.

Eskualdeari begiratuz gero industriarlo garrantzitsua (metalurgia, garraioa, ostalaritza, Alkaiaga industrialdea...) berehala ikusten dugu. Eta honek egunero 8.500 ibilgailu inguru mugiarazten du eta hauetarik aunitz dira garraio astunak. Gure errepideak egoera txarrean daudela gogoraraztea ez da beharrezkoa, guztiok ezagutzen dugu eta. Orain arte, gai honi dagokionean behintzat, ia-ia ahazturik izan gaituzte, eta bada garaia gure azpiegituren funtsezko egokitzea aldarrikatzeko elkar gaitezen. Belateko tunelak eraikitzen ari dira (hobekuntza haundia), baina dena hor geratzen baldin bada, ez digu mesede haundirik eginen. Eraikuntza hortxen geratuz gero Oronoz-Mugairi inguruan km. askoko izugarrizko kotxe-iladak izanen genituzke egunero, han nolabait enbudo bat sortuko baitzen. Belaten egindako lanak Frantziara joateko bide naturala, N-121 errepidea, berritze eta egokitze lanekin osotu behar dira eta, baita gure zonaldeko bertze txokoetara diren bideak konponduz eta hobetuz ere.

**Gure errepideak egoera txarrean daudela gogoraraztea ez da beharrezkoa, guztiok ezagutzen dugu eta. Orain arte, gai honi dagokionean behintzat, ia-ia ahazturik izan gaituzte, eta bada garaia gure azpiegituren funtsezko egokitzea aldarrikatzeko elkar gaitezen. Belateko tunela eraikitzen ari dira, baina dena hor gelditzen baldin bada, ez digu mesede haundirik eginen.**

Eztabaida hau ez da berria eta zonaldeko biztanle guztiak premia honetan bat gatoz. Lehentasunak jarri behar direla ere ageri-agerian dago (nahiz eta errepide guztiak garrantzitsuak izan), lan guztiak aldi berean egiteko haina diru ez dagoelako. Lehentasun hau gure industri maila hobetu eta ardatz ekonomiko garrantzitsu bat sortzeko premian oinarritzen dugu, eta horrela, bertzeak bertze, eta adibidez, langabezia murriztu.

Guztion artean helburu hau lortzen badugu guizion onerako izanen da.

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Diario de Noticias 96-XI-22

*«Politikan bigarren mailan nago, nahiz eta grinak eta asmoak hor dauden beti, eta errezagoa zait literaturan gehiago murgiltzea»*

**Patxi ZABALETA**
Leitzako idazle eta politikoa
Diario de Noticias 96-XI-22

*«Zinaurri bat bezalaxe, poliki-poliki gora-behera handirik gabe baina beti lanean, gure hizkuntza eta kultur berpizteko. Erlojeroa ogibidez, eskualdune bihotzez. Etsairik gabeko gizona hauxe! [Mariano Izetaz]»*

**Joseba IGARABIDE**
Xorroxin Irratikoa
Egunkaria 96-XI-27

*«Nekazal politika zuzentzen dutenek hazkuntza naturala defenditzeko neurriak hartu beharko lituzkete»*

**Mikel PETRIRENA**
COAGeko ordezkaria
QUO aldizkaria (Azaroa)

## 11 GALDERA LABUR



**Jose Ignacio ARIZTEGI**
Iturengo Herriko Ostatukoa

- **Ostatutik pasatzen direnen artean zeinekin egoten zara gustorago?**
- Bakoitzarekin bere modura.
- **Herriko Ostatuko «pezera telebistako» arrainei izenik jarri al diezu?**
- Ez, oraindik bataiatu gabe daude.
- **Edaritan garestiena?**
- Carlos I koñaka.
- **Eta merkeena?**
- Ardoa.
- **Zabor kontenedoretatik zein da harrapatu duzun trasterik erabilgarriena?**
- Bideo bat, eta oraindik badabil gainera.
- **Barkaziotan nora joan zara urrutien?**
- Tunezera
- **Eta nora joan nahiko zenuke?**
- Indiara edo.
- **Iñauteriak edo bestak?**
- Iñauteriak, dudarik gabe.
- **Disfrazatzeko mozorrorik gustokoena?**
- Sabaiko edozein erropa zaharrekin egiten gara.
- **Zein musika mota duzu gustokoena?**
- Denetarik aditzen dut.
- **Zeinen kontzertura joanen zinateke?**
- Reggae talde batenera.





• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

*Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak*

Eztegara 19 • ✆ 63 02 40
**BERA**

**ZALDUBI**

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ✆ 580562
IRURITA - BAZTAN

**Sukalde eta Bainu Mobleak**

*Egoki-ren banatzaile baimendua*

EGOKI

EUSKARA

# 'Eman euskarari berea' lemapean manifestazioa eginen da Bilbon hilaren 14an

## Autobusak aterako dira eskualdetik

«Eman euskarari berea» lemapean eta euskararentzat justizia eskatuz manifestazioa burutuko da datorren larunbatean, abenduak 14, Bilbon. Leitzaldea, Baztan, Malerreka eta Bortzirietatik ere autobusak abiatuko dira, bertako Euskara Zerbitzuek antolatuta.

Antolatzaileek adierazi dutenez, *"momentu batez pentsatzen jarriz gero ohartuko zarete gure eguneroko bizitzan hamaika traba ditugula euskaraz bizi ahal izateko. Traba horiek gainditzea eta euskarari berea ematea gure esku eta administrazioaren esku dago"*.

*"Aspaldi honetan,* –diote antolatzaileek–, *euskararen egoera dela eta, gure artean zabaldua dago gauzak ongi doazela, egoera gero eta hobea dela, haur gehienek ikasten dutela, euskara hizkuntza ofiziala dela..., alegia, primeran doala"*.

Halere, optimismo hori *"gezurrezko optimismoa"* dela adierazi dute, arrazoi ezberdinengatik:

• Legeak administrazioarekin euskaraz aritzeko *eskubidea* ematen digu, baina posible al da gure herrietako mediku-erizainekin, pediatrekin, mendizainekin, albaiteriekin, postariekin, bake-epaitegiekin... euskaraz normaltasunez aritzea?

• D eredua *gora* doa. Baina noiz emanen digu aukera Nafarroako Unibertsitate Publikoak bertan ikasketak euskaraz egiteko?

• Gure herrietan baditugu *euskaltegiak*. Baina noiz arte iraun ahal izanen dute dituzten dirulaguntza murritzekin?

• TTIPI-TTAPA eta Xorroxin euskara hutsean aritzen dira. Baina noiz arte Xorroxin emititzeko lizentziarik gabe? Noiz arte eskualde honetako udalak (Baztan, Malerreka...) TTIPI-TTAPAri laguntzarik eman gabe?

MERKATARIAK

## Partzuergoko Merkatal Elkarteko zuzendaritza batzordea berritu da

Azaroaren 26an egindako batzar orokorrean zuzendaritza batzorde berria aukeratu zuen Bertizko Turismo Partzuergoko Merkatal Elkarteak. Doneztebeko Ostiz Etxeko Carlos Ostiz izanen da elkarteko lehendakaria. Elizondoko Esarte harategiko Javier Pina lehendakari ordea izanen da eta Doneztebeko Maribel Telletxea idazkaria. Bokal lanak, Berako Goiko argazki dendako Martin Goikoetxea eta Elizondoko Mena argazki dendako Mª Josefa Barberena.

Egia erran, ez zuen merkatarien parte hartze haundirik izan batzar honek, zortzi lagun bertzerik ez baitziren bildu. Halere, aurtengo balantzea positiboa izan dela adierazi zuten, batez ere ikastaroei dagokienez eta datorren urterako ere ikastaro gehiago egiteko asmoa azaldu zuten. Honela, CEIN erakundearen eskutik, kontabilidade eta salmenta teknikei buruzko ikastaro bana antolatzeko intentzioa dago.

Bertzalde, urtean zenbait egun berexi ere antolatu nahi dituzte eta batzarrean aipatutakoaren arabera, Merkatarien Eguna eta Komertzioaren Eguna ospatuko dira 1997an, bertzeak bertze.




© 631076 • BERA

ZALAIN
JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
© 63 11 06
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

F. MARITORENA
Mendi eta lorategi garbiketak
Tfnoa.: (948) 63 11 99 - BERA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — © 63 07 63

## BERA

# Santa Zezilia eguna ospatu zuten musikalariek

Urte bukaera baino lehen bertze musika ekitaldiak izanen dira

KRISTINA BOAN

Urtero bezala, Santa Zezilia Eguna ospatu zen azaroaren 24an. Herriko plazan banda aritu zen hainbertze lan erakutsiz. Trikitixa ikasle eta irakasleak eta txistulariak karrikaz karrika ibili ziren. Aurten akordeoilariek arazo batzuk izan zituztela eta ez ziren ateri. 12etako mezan Berako abesbatzak kantatu zuen eta ondotik, eskolako ikasle, irakasle, Berako musikari eta zaletu guziek bazkaria izan zuten.

Bertzalde, musika ikasleek ikasturteko lehen hiruhilabetea akautzen dela eta, beren lanen agerpena eginen dute Kultur Etxean, abenduaren 18an. Hortaz gain, ikasitakoa erakutsiko dute musika eskolan, entzunaldi ezberdinetan. Abenduaren 17an, piano, teklatu, kitarra eta haizezko musika tresnetako ikasleak arituko dira eta 19an perkusio, akordeoi eta txistu ikasleak.



### Lamixinek 'Lilien lilura' aurkeztuko du

Igande honetan, abenduak 8, arratsaldeko 6etatik aitzinera Lamixine Berako Antzerki taldearen *'Lilien lilura'* antzeslana ikusgai izanen da Kultur Etxean. «Atxuriatik Larrunerat» kultur hilabetearen barrenean garatuko da ekitaldia. Larunbatean ere, izen bereko antzeslana ikusgai izanen da leku berean, arratseko 8etatik aitzinera. Saio hau gazteleraz eskainia izanen da. Abenduaren 20an, berriz, mendiari buruzko margo eta eskultura erakusketa bat zabalduko da Kultur Etxean. Argazkia: Joxemanuel

## flash

**Aurrekontuen %0,7a**
Hirugarren Munduko herrialdeen garapenerako bideratzea eskatuz sinadura bilketa burutzen ari da. Firmak Ayla, Erratx eta Josefina Arturo dendetan eta Labe-Zar okindegian utzi daitezke urte bukaera arte.

**Josu Unsion**
herriko preso politikoaren epaiketa epaiaren zain geratu da, zortzi aldiz Audientzia Nazionalera joan ondotik. Probak 1984 baino lehenagokoak izan arren, fiskalak hamar urteko gartzela zigorra eskatu du. Bi urte terdi daramazki Josuk Alcala-Mecoko gartzelan.

**Udal zergak**
Datorren urteko urtarrilaren 10a arte zabalduta dago 1996ko 3. hiruhilabeteko uraren ordain-agiria ordaintzeko borondatezko epea. Ondoren, ordaina-giri hauek exekutibo bidez kobratuko dira, premiamendu errekargua, atzerapen interesak eta bertze gastuak gehituta.


Dia % Autozerbitzua deskontua
Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6 • ✆ 63 14 03 • BERA

AHORRO-BERRI
janaridenda
Legia 4 • BERA
Igande goizetan irekia

SAROBE okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

# LESAKA



Argazkia: TELLETXEA

## 82 azienda aurkeztu ziren ferietako lehiaketara

### Horietatik 60 zaldikoak ziren

AITOR AROZENA

Hirutan hogei zaldikoen artean Jose Antonio Anduezaren bik eskuratu zuten lehen eta hirugarren sariak eta Zulangorroko Mattin Etxabideren batek bigarrena.

Hamahiru behi bertzerik ez ziren plazaratu. Holandesetan Biurgaraiko Salvador Goiak eraman zuen lehen saria eta Makukobordako Luis Olaetxeak bigarrena. Suizetan ere Makukobordara joan ziren bi lehenbiziko sariak eta Marpitxipenbordako Milagros Almandozek eskuratu zuen hirugarrena. Berreuko Juan Antonio Prietok etxeratu zituen haragitako behien hiru lehen sariak.

Bederatzi ahari presentatu ziren lehiaketara eta Arantzako Fermin Elizondok eraman zituen bi lehen sariak eta Juan Luis Etxegarai beratarrak hirugarrena.

Ehizi zakurrak ere ikusgai izan ziren eta egun osoan martxan izan zen Huarteko errotak bezalaxe, ikusmina piztu zuten.

Jende aunitz ibili zen karriketan, ikusteko eta erosteko aukera zabala baitzegoen.

## Beti Gazteren argazki lehiaketako sari nagusia Egibar gasteiztarrarentzat

Joseba Egibar gasteiztarrak irabazi du Beti Gazte elkarteak antolatutako seigarren argazki lehiaketako sari nagusia *'Otoño'* izeneko lanarekin. Bigarren saria Elda Garrido bilbotarrak eskuratu du *'Polvareda'* argazkiarekin. Kirol argazki onena Juan Angel Ordoki lesakarraren *'Egun on'* izan da epaimahaiaren ustez. Bi aipamen berezi ere eman dira, Jasone Telletxea lesakarraren *'San Juan'* eta Eduardo Sanchez donostiarraren *'Mirando al mar'* lanei.

Guztira, kalitate haundiko 145 argazki aurkeztu dira lehiaketara, Euskal Herrikoak gehienak baina baita Katalunia eta Galizatik igorritakoak ere.

## Jota jaialdia ospatuko da datorren igandean

Abenduaren 14an, arratsaldeko 6etatik aitzinera jota jaialdia ikusteko aukera izanen da herriko frontoian. Euskal Dantzarien Biltzarreko Nafarroako atalak, Tantirumairu dantza taldearen eta Bianako Printzea erakundearen laguntzaz antolatutako ekitaldi honetan Nafarroa osoan eta Gipuzkoan jota dantzatzeko era ezberdinak ikusi ahal izanen dira. Dantzariak Erribera aldetik etorriko dira gehien bat, baina herriko bikoteren bat ere atera daiteke.

## flash

**Bazkalekuak hobetzeko** erretze teknikak erabiltzeari buruzko solasaldia emanen du Aurkidi elkarteak abenduaren 13an, ortzirala, arratseko 8etatik aitzinera Herriko Etxean.

**Herriko mendi komunalen** gestiorako plan teknikoa Basartea S.L. enpresak eginen du 5.142.000 pezetatan.

**Bide seinalez** ederki hornitu dute herrigunea. Leku ezberdinetarako norabideak, aparkalekuak, debekuak... garbi azaltzen dira.

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - ✆ 637264

ETXALARKO HERRIKO OSTATUA
✆ 635290

Udazkeneko Menu berezia
Aza pastela odolkiz betea pikillo eta bertako ilar-saltsan
Onddo nahaskia
Etxalarko usoa
Orein eskalopinak masusta saltsan
Gaztain pastela
Galcibar-94 ardoa, ogia eta kafea
2.900 Pta.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 627573 • LESAKA

ORBELA
gimnasioa
• Squash eta sauna
• Hidromasaje bainua
• Muskulazio-aretoa
• Kirol masajea
Antoiu 21 • ✆ 637950 • LESAKA

## ETXALAR

# Azkeneko urteetan baino uso gehiago ehizatu da aurten

Ehiza-denboraldia ere inoiz baino gehiago luzatu da

PELLO APEZETXEA

Hamarren bat urte badira, sarez aurten hainbertze uso harrapatu ez dela: 153 dozena. Iduri duenez, eguraldiak zerikusi haundia izan du; batez ere, hego-haizeak ez du bertzetan bezala oztopatu. Aski berandu ere uso multzo politak sareratu dituzte; errate baterako, azaroaren 15eko 25 dozenak. Sarez ehizatzen duten Iparraldeko bertze usategietan ere, ondarreko urteetako emaitzak hobetu omen dituzte. Eguraldi ona denentzat izan da ona.

### Larraburuko mus txapelketa

Azaroaren erdian hasi zen Larraburua Elkarteak antolatzen duen Mus txapelketa. Urteberriak arte igandeetako eguerdietan animazioa indartzen da Larraburua etxean.

### 1997. urterako kontribuzioen karga tipoak

Iazkoak zerbait goititu dira, bizitzaren garestitze neurrian, eta honela gelditu dira:

Hiri kontribuzioa, etxeen eta herriguneko lurren balioaren gaineko %0,25a. Landa kontribuzioa, lurraren balioaren gaineko %31a. Lizentzia fiskalaren tarifa, industria, lantegi, denda eta antzekoei kobratzen zaiena, %1,10a. Eraikin, instalazio eta obren gaineko zergaren karga tipoa, berriz, %2koa izanen da.

Hiri kontribuzioak 4.777.000 pezeta sartu ditu azken urtean herriko kutxan. Landa kontribuzioak, berriz, 606.467 pezeta. Lizentzia fiskalagatik 3.100.000 pezeta bildu dira. Horrez gain, autoen zirkulazio zergagatik 3.411.000 pezeta jaso dira.



### Eskulan ikastaroa luzatu nahi dute

Esku-lanetako ikastaroan fin segitzen dute emaztekiek. Urtearen ondarrerako akautuagatik, urte berrian luzatzeko asmoak edo esperantzak ere badira

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 63 03 70 • BERA

« USOA »
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

IRUGLAS, S.L.
GRABADOS
GRABATUAK:
• Granitoan
• Ispilu eta kristaletan
• Zeramikan
• eta edozein materialetan
Edozein marrazki edo argazkirekin
DEITUREN IRUDIAK (ESKUDOAK)
Ateen kristalak grabatzen ditugu, koloretan
Fraingo Bidea • Tfnoa: 637412 • Faxa: 637800 • IGANTZI



## IGANTZI

# Gogor ari da lanean abesbatza abenduko ekitaldiak prestatzen

Bea Lizardi aurten ere txapeldun Donezteben

OSKAR TXOPERENA

Egitarau estua dauka abenduan Igantziko abesbatzak, kanpotik heldu den abesbatzari ongi etorria behar bezala prestatzen alde batetik, eta eurek eman beharreko kontzertuak prestatzen bertzetik. Hurbilenetik hasita, larunbatean, abenduak 8, ilunabarrez, Berako abesbatza izanen da elizan, azkeneko bi kantak bertakoekin abestuz. 21ean berriz, igantziarrak dira herritik mugitzekoak, Berako Kultur Etxean kantatzera. Eta azkenik, urtero eguberrietan egin ohi duten bezala, herritarrei eskeiniko dizkiete beren kantak abesbatzakoek, Inoxente egunean, hain zuzen. Gezurra ez izatea espero dugu.



**Urte emankorra**

Guttitan izan dugu aukera herrian horrelako haur taldea ikusteko. Ez dago dudarik, urte emankorra izan da aurtengoa. Argazkia: OSKAR

### Rock kontzertua

Ondorio on gutti ekarri du azaroaren 16ko rock kontzertuak. Bertan, JFK, Urtz eta Exkixu taldeek hartu zuten parte eta, eguraldi txarrarengatik edo, etzen jende aunitzik bildu bertara. Zenbaitzuk herrian egindako txikizioak ere ezin aipatu gabe utzi gainera, dibertitzeko moda berria bihurtu baita nonbait. Ea suerte gehiago duten gazteek hurrengo batean eta gauzak hobekiago joan direla errateko aukera dugun.

*Pertsonaia*

Bea Lizardik bigarren urtez irabazi du Baztan, Malerreka eta Bortzirietako pala txapelketa. Joan den urteko lagun berarekin jokatu du aurten ere, Begoña Taberna lesakarrarekin hain zuzen. Zorionak!



Bea LIZARDI

### Zerri puxkak

Martxoa bukatu arte zerri puskak biltzeko egutegia jakinarazi dute Osasun Etxetik. Zerria hiltzen duenak, astelehenetik ortzegunera, 9etatik 12etara eraman beharko ditu puxkak Lesakako Osasun Zentrora.


*Errekalde ostatua*
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
Tfnoa: 630259 - BERA



*EKAITZA kafetegia*
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Plaza Berria, 13
☎ 948 - 62 75 47
LESAKA
Lagunekin elkartzeko toki egokia

*Aranguren*
Aroztegi mekanikoa
Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mugikorra: 908 -77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA
- Leihoak
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara

barnek s.l.
Sukalde mobleen fabrika
*Zuzeneko salmenta*
Lesakako sarreran, Beko-Errota ondoan
Otsango auzoa • LESAKA • Tel.: 637850, Fax: 637928

## ARANTZA

# Kultur Asteko ekitaldietan jende aunitzek parte hartu du

## Baserritarren Eguna arrakastatsua

ELIXABET ETA GARBIÑE

Azaroaren 14tik 17ra ospatu zen Kultur Astea Ekaitza elkartean egin zen afariarekin bukatu zen. Aipatzekoa da antolatutako ekitaldi guzietan jendeak aunitz parte hartu zuela. Espero bezala, egunik haundiena igandeko Baserritarren Eguna izan zen. Uste baino erakusketa-mahai gehiago izan ziren, 30 etxek beraien produktuak ekarri zituztelarik. Denetatik ikusteko aukera izan zen, fruituak, barazkiak, aziendak, eskulanak... Ostatu ttiki bat ere paratu zuten eta prestatutako pintxoak eta salda ederki eskertu zuen jendeak, eguraldi hotz eta euritsua goxatzeko.

Bazkaria prestatu zen Ekaitza elkartean eta 85 pertsona bildu ziren otordura.

Pentsatu bezala, denek ederki pasatzeko aukera izan zuten.

### Ebasketak areagotzen ari dira

Lapurketak areagotzen ari dira, bertze bi baserritan ere sartu baitira. Oraingoan Sagargoxo eta Inurtzain baserrien txanda izan da.







**Afal ondotik, Nafarroako trikitilari txapeldunen animazioa izan zen. Baserritarren Egunean, gure baratze eta baserrietatik ateratako produktuak ikusgai izan ziren** Argazkiak: Elixabet


XATURETXEA

JATETXEA

Tfnoa: **63 70 27 LESAKA**

**KIROLAK ZELA**

Altzate 6, © 63 05 98

**BERA**

LEGARRA

Legarrea, 9 • © 63 70 30 • LESAKA

**IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU**

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak



**ROMANO dekorazioak**

Pintura eta papereztatze lan guztiak egiten ditugu

- Zolak jartzen ditugu:
  - Kortxoa
  - Moketak
  - Parketa
  - Sintasola
- Gure kolokazio tailerra daukagu

Aurrekontuak konpromezurik gabe

Legia 1 • Tel. 631137-630941 • **BERA**

## SUNBILLA



1992an, lehendabiziko ikastaroan (autoestimari buruzkoa) parte hartu zuten emakumeak
Argazkia: Artxiboa

# Bortz emakume joaten dira ikastaroetara

## Iruñean antolatu ditu Emakume Institutoak

IXABEL ETA JOSUNE

Nafarroako Emakumearen Institutoak aurten ere ikastaro batzuk antolatu ditu Iruñean, eskualde honetako emakumeei zuzendua. 1992an hasi ziren ikastaro hauek eta orduz geroztik urtero zerbait eskaintzen dute.

Aurtengoan bortz emakume joaten dira herritik eta gauza interesgarriak ikasten dituzte: ordenadore, fax eta fotokopiagailuak erabiltzen ikasi, Word textu prozesatzailean kurrikulumak egin, zerga inprimakiak betetzen jakin eta kontabilitate informatizatua.

### Olentzero Egunerako prestakizunak hasiak dira

Olentzero Eguna iristear dago eta abenduaren 14an eta 21ean, larunbatez, eguerdiko 12etan izanen dira entsaioak, aurten ere Arantxaren bajeran.

Musika instrumento bat jotzen dakiten guztiak entsaioetara eramateko eskatu dute besta egun horretako antolatzaileek. Abenduaren 24an, berriz, eguerdiko 2,30etan elkartuko dira Arantxaren lokalean. Herrian barna ibili eta Ulibeltzak elkartean berendua eginen dute. Urtero bezala, eskean biltzen den diruarekin kultur ekitaldiren bat antolatuko da.




GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta
Lizun
Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA
Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

ARIN
ASEGURUAK
Era guzietako aseguroak preziorik onenean
autoak, kamioiak, etxe, istripu, bizitza, aurrezki...
Poliza bakoitza norberaren beharretara egokitzen dugu
Parrokia 21, Tel.-Fax: 450266 • DONEZTEBE

## DONEZTEBE

# Santa Luziako feria ospatuko da abenduaren 13an

## Nekazal produktu eta artisautza feria zabalduko da

TXEMA ALDABE

Garai batean Santa Luziako feriak herrian zuen indarra berreskuratu nahiean edo abenduaren 13rako Feria Eguna antolatu dute Doneztebeko Udalak, Bertizko Turismo Partzuergoak eta Cederna-Garalur erakundeak, Rural Kutxaren laguntzaz.

Goiz osoan azienda merkatua izanen da eta 11etan meza. 11etatik 2etara nekazal produktu eta artisautza feria plazoletan eta eliza atarian izanen dira. Eguerdian bertsolariak arituko dira eta beranduxeago Sunbillako trikitilariak. Arratsaldeko 6etan aizkolariak norgehiagoka arituko dira frontoian eta ordu berean, pailazoak izanen dira zineman.



**Bidasoako Trenari buruzko Eguna**

Azaroaren 27an Bidasoako Trenari buruzko Eguna ospatu zen Donezteben eta hainbat pertsonalitate etorri ziren. Eskualdeko zenbait alkaterekin batera, Nafarroako Gobernuko Turismo eta Ingurugiro saileko ordezkariak, Euskadiko Elkarte Autonomo eta Gipuzkoako Diputazioko turismo sailetako zuzendariak, Cederna-Garalur erakundeko lehendakaria eta gerentea, bertzeak bertze. Zineman dagoen erakusketa bisitatu eta garai bateko trenabidetik pasiatu ondotik, hameketakoa izan zuten. Argazkia: Karmele

### Anbulantzia berria

Bertze anbulantzia bat gehiago izanen da Baztan-Bidasoako enbulantzia enpresan, horretarako baimena eman baitio Doneztebeko Udalak gerenteari.

### Ostatu berria

Merkatari karrikan ostatu bat egiteko obra baimena eman dio udalak Epifanio Telletxeari. Lanak hasten direnetik hiru hilabeteko epea izanen du akitzeko.

### Telefono mugikorrak

Telefonia Mugikorreko estazio bat egin eta esplotatzeko Askingo Etxailar inguruko 112 metro karratu utziko dizkio udalak Airtel enpresari.

### Materia bizigabeen zabortegia

Materia bizigabeen zabortegiko lanak egiteko Mikel Iribarren eta Jose Mª Anzizar langileak kontratatu ditu udalak INEMen laguntzaz.

## flash

### Azken agurra Carmelo Alsuari

Carmelo Zenoz, Alsua bezala ezaguna zen Doneztebeko palista azaroaren 10ean zendu zen, 69 urte zituela. Aski pilotari ezaguna izan zen 60. hamarkadan. Bere errautsak Intzakardiko parkean hedatu zituzten.

### Emakume elkarteei buruzko solasaldia

Alaitz elkarteak solasaldia emanen du Malerrekako Mankomunidadean, abenduaren 11n, arratsaldeko 5etan. Gaia emakumeen elkarteak izanen dira, nola osatu, helburuak, ekintzak... Bilera pertsona guztiendako izanen da, baina batez ere Malerreka, Bortziriak eta baztango emakumeendako.

### Intzakardi parkean

zakurrak sartzea debekatuz kartelak jarri dira. Karrikan barna solte ibiltzea ere galeraziko omen dute udal langileek.


ZURE ARGAZKIAK
ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

FOTO MENA

KALE NAGUSIA 4
TEL ETA FAX: 45 08 25
DONEZTEBE

SANTIAGO KALEA 40
TEL: 58 01 55
ELIZONDO

IA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALTASUNA ESKEINIZ

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

Hari Cruz
LENCERIA
Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

## MALERREKA

# Iturengo Kultur Egunak abenduaren 5etik 7ra

### Ibintza kultur taldeak antolatu du asteburu honetako egitaraua

IBAN ISASI

Ibintza kultur taldeak antolatuta aurtengoan abenduaren 5etik 7rako asteburu luze honetan erabaki dute egitea Kultur Egun hauek.

Abenduaren 5ean, ortzeguna, arratsaldean talo jatea izanen da. 8etan trikitilariak eta 8,30etan HIESari buruzko solasaldia, Elizondoko COFES-Haizea erakundeko kide batekin. 10etan kantaldia, Patxi Saez eta Jon Bergaretxe kantariekin.

Ortziralean, goizeko 11etan futbito txapelketa jokatuko da. 1,30etan hameketakoa. Arratsaldeko 4,30etan mus txapelketa. Arratsaldeko 7etan antzerkia izanen da. Gaueko 11etan musika kontzertua burutuko da. Alde batetik, Baionako *King Mafrundi* reggae taldea eta bertzetik, Tolosako *Marruma* rock taldea.

Larunbatean, 11etan zaldi eta pottoketan pasiatu ahal izanen da. Arratsaldeko 4etan karaoke eta berendua haurrendako. Arratseko 7etan Bidasoako trenbide zaharrari buruzko dispositibak izanen dira ikusgai, Mikel Albisuren eskutik. Arratseko 9etan bertso afaria Xebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariekin. Gauerditik goizaldera gaupasa *Etzakit* trikiti taldearekin.




**Garai bateko Bidasoako Trenari buruzko diapositibak ikusgai izanen dira larunbatean, Mikel Albisuren eskutik** Argazkia: Artxiboa

## 90 milioiko aurrekontua izanen du Donamariako Udalak

90.026.167 pezetako sarrera-irteerak izanen ditu aurten Donamariako udalak plenoan onartutako aurrekontu orokorraren arabera.

Gastuei dagokienez, gehiena inbertsioetan joanen da, 32.836.448 pezeta gastatuko baitira. Langileen lansarietan 5.917.000 pezeta gastatuko dira, ondasunak eta zerbitzuak erosten 19.738.000 pezeta eta transferentzia arruntetan 3.970.000 pezeta, bertzeak bertze. Diru sarrerei dagokienez, subentzioen bidez 16.758.600 pezeta sartuko dira, tasen bidez 16.028.948 pezeta, 7.335.000 transferentziatan eta 6.668.000 pezeta zergen bidez.




ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:
- Daniel Hechter
- Caramelo
- Island
- Genfis
- Marithe François Girbaud
- Bonaventure
- Replay
- Diesel
- Levi's
- Lacoste

GONBIDATU ETA GIZONGAIENDAKO TRAJEAK

*Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 IRUN*

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxozgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
**Termita eta Polillen kontrako tratamendua**

BERA DESINFECCIONES
✆ 63 01 55
BERA

TABERNA ETXEA
- Santa Luziako astean oferta ikaragarriak
- Olentzero eta Erregetarako oparietan eskeintza haundiak

Zorionak eta Urte Berri on!

Merkatarien karrika 12, ✆ 450007 • **DONEZTEBE**




# EUSKARA LANDUZ!!

23.
Zenbakia

Araitz-Betelu, Bortziriak, Basaburua, Goizueta- Arano, Imotz,Larraun,
Leitzaldea eta Malerrekako Euskaltegiak

# Estranjeriatik Euskal Herrira





**Mari Cruz Jimenez Beran bizi den panamarra**

* Euskara,hemen bizi behar dudalako ikasten ari naiz, leku batera joan eta bertako hizkuntza ez egitea absurdoa iduritzen zait eta ez hizkuntzekin interes berezirik edo intelektualik dudalako. Nik, ez banu hemen bizi beharko, ez nuke honetan denborarik emanen.

* Hona etorri aurretik Euskal Herriaz ez nekien deus, ezta euskara bazegoenik ere, bakar bakarrik ETAk egindako atentaturen baten berri nuen.

* Euskara ikastea zaila egiten zait, kalean praktikan jartzen saiatzen naiz eta horrela gauza anitz ikasten ditut. Erran behar dut, baita ere, hemengo jendea hagitz atsegina dela nirekin.



**Roger Bergman Etxalarren bizi den estatu batuarra**

* Hona etorri baino lehen zenbait lagun amerikarrek hemen jende anitzek gaztelaniaz mintzatzen denez euskara ez zela beharrezkoa erran zidan. Niri, berriz, bertakoekin beraien hizkuntzaz komunikatu ahal izatea garrantzitsua iruditzen zait.

* Euskara zaila da baina izugarri polita da eta bizirik mantenduko dela uste dut. Oso inportantea da haurrek eskolan euskaraz ikastea.

* Etxalarren, bizi naizen herrian,euskara entzuten da eta zerbait ulertzen ez badut jendeari galdetzen diot, gehiago ikasteko asmoz.

* Nola ikusten ditudan euskaldunak? Ba... edozein pertsona normal bezala.



**Alan Leiper Lesakan bizi den eskoziarra**

* Euskara ikasten hasi naiz hemengo hizkuntza delako, hemengo jendearekin harremanak egiteko eta hemengo kultura ezagutzeko beharrezkoa delako.

* Euskal Herriaz zeozer banekien. Euskaldunen bat edo bertze ezagutzen nuen eta gainera Eskozian ere autodeterminazioa eta herrien kulturarekin, sensibilizazioa bada.

* Dakidan euskara kalean erabiltzen dut.

* Euskaldunak independienteak, langileak, zintzoak, serioak eta beren ohituretan ongi errotuta daude.



**Isabel Nogales Leitzan bizi den venezuelarra**

* Orain dela 8 urte ailegatu nintzen Leitzara. Hemen hobeki integratzeko eta nire semea euskara ikasten ari delako, aurten euskara ikastera animatu naiz.

* Hona etorri aurretik "Centro Vasco" delakoa ezaguna nuen eta harrigarria da han nola mantendu duten euskal kultura.

* Euskara oso desberdina bada ere, benetan polita eta interesgarria iruditzen zait. Dena den, behar baino gutxiago mintzatzen da. Ez dut ulertzen horrenbeste urte hemen bizi eta euskara ez ikastea, are gutxiago euskaldunak direnak erdaraz aritze hori.

* Euskalduna jende serioa eta itxia da, hala ere, gero arazorik gabe onartzen zaituzte.



# Aho loreak

SARIRAKO ARIKETA

**Euskaraz badira esamodu egokiak egoera batzuetan erabiltzeko. Guk bi zerrenda emanen dizkizugu , bata esamodu arruntekin eta bestea xuxenagoekin. Lotu elkarrekin marra batez:**

| **ARRUNTAK** | **XUXENGOAK** |
|---|---|
| **1*** Zuri bota dizute kulpa. | **A*** Hobe du hori egin! |
| **2*** Ez zait batere gustatzen. | **B*** Nor da orain? |
| **3*** Nori tokatzen zaio? | **C*** Oraindik horrelakorik! |
| **4*** Pentsatzen dut joatea. | **D*** Bai zera! |
| **5*** Zer pasatzen zaizu? | **E*** Ederki jo dit adarra horrek. |
| **6*** Ez dezala hori egin, eh! | **F*** Larrua betean jan dugu. |
| **7*** Keba! | **G*** Zure gain egin dute. |
| **8*** Tripa bete arte jan dugu. | **H*** Bai ergela! |
| **9*** Zer gauzak! | **I** * Joan gogo dut. |
| **10*** Zer tontoa den! | **J*** Zer duzu? |
| **11*** Ilea hartu dit. | **K*** Ez dit onik egin. |

## Hezi zure mingaina!!




**Aditu izanen dituzue behin baino gehiagotan honelako esaldiak:**

**— Nahi dut bokadiloa.**
**— Dago hor Amaia?**
**— Nago oso aspertuta.**
**— Egin duzu tranpa.**

**Umeen ahotan maiz, aditzen ditugun esaldiak traketsak dira eta gurasoon lana hizkuntzari gehixeago kasu ematea eta okerrak zuzentzea da.**

**Normalean aditzak edo berboak esaldiaren bukaeran joan behar du. Lehenbiziko inportantzia gehien duena esaten da eta ondotik aditza edo berboa.**

**— Bokadiloa nahi dut.**
**— Oso aspertuta nago**
**— Tranpa egin duzu.**
**— Amaia hor al da?**



### ARIKETA

**Orain zuzendu esaldi hauek:**

| | |
|---|---|
| 1.— Dago klasean. | 1.— ........................................ |
| 2.— Da gorria. | 2.—........................................ |
| 3.— Dago telebista ikusten. | 3.—........................................ |
| 4.— Nago ongi. | 4.—........................................ |
| 5.— Naiz sukaldaria. | 5.—........................................ |
| 6.— Etorri da berandu. | 6.—........................................ |




# Euskara arropa berriarekin jazten

**Honetakoan animalien familiak ezagutzera joanen gara eta horretarako familia horien izenak ikasiko ditugu:**

* **UGAZTUNAK:** kumeak direnean esnea edaten duten animalia hezurdunak.
Adibidez: behia, elefantea, otsoa,...

* **HEGAZTIAK - TXORIAK:** Hegal egin eta arraultzak erruten dituzten animalia lumadun eta hezurdunak.
Adibidez: oiloa, eperra, arranoa,...

* **NARRAZTIAK:** Mugitzeko herrestaka edo narraz ibiltzen diren animalia hezurdunak.
Adibidez: krokodiloa, sugandila, dordoka, igela,...

* **MOLUSKOAK:** Insektuak ez diren eta nahiz uretan nahiz lurrean bizi diren animalia hezurgabeak (batzuk oskola edo kontxa ere badute)
Adibidez: karakola, olagarroa (pulpoa), txirla,...

* **INTSEKTUAK- ZOMORROAK:** Hegaka edo lurrean ibiltzen diren animalia ttiki hezurgabeak. Adibidez: erlea, zorria, pinpilinpauxa- tximeleta,...

* **ARRAINAK:** Uretan bizi den eta ugaztuna ez den animalia hegaldun eta hezurduna.
Adibidez: amuarraina, hegaluzea (atuna), izokina,...

**Orain pareka itzazu marratxo baten bidez animalien izenak eta familiak:**

| | |
|---|---|
| 1.— Balea | |
| 2.— Zinaurria | **A.— UGAZTUNA** |
| 3.— Barea | |
| 4.— Muskerra | **B.— HEGAZTIA - TXORIA** |
| 5.— Sagarroia-trikua | |
| 6.— Legatza | **C.— NARRAZTIA** |
| 7.— Mandeulia | |
| 8.— Epetxa | **D.— MOLUSKUA** |
| 9.— Suge itsua - zirauna | |
| 10.— Txipiroia | **E.— INTSEKTUA - ZOMORROA** |
| 11.— Zozoa | |
| 12.— Aingiria | **F.— ARRAINA** |

# Euskara salda



**Oraingoan kanpoko gorputz zatiak EUSKARAz nola erraten diren ikasiko dugu. Horretarako beheitian agertzen diren hitzak, marrazkiaren numeroekin lotu beharko dituzue:**

**<u>Adibidez:</u>** **— IZTERPEA:** [6]

| | | | |
|---|---|---|---|
| A.— Ukondoa, ukalondoa | [ ] | G.— Tripa, zorroa,sabela | [ ] |
| B.— Eskumuturra | [ ] | H.— Atzamarrak, behatzak | [ ] |
| C.— Aztala, berna | [ ] | I.— Ukabila | [ ] |
| D.— Bularra, paparra | [ ] | J.— Sorbalda, bizkarra | [ ] |
| E.— Izterra | [ ] | K.— Lepondoa, garondoa, lepagaina | [ ] |
| F.— Orkatila,zornioa,txurnioa | [ ] | L.— Besapea, galtzarbea | [ ] |
| | | M.— Xilkoa, zilborra | [ ] |





## SOLUZIOAK

**HEZI ZURE MINGAINA!!**

1.— Klasean dago
2.— Gorria da.
3.— Telebista ikusten ari da.
4.— Ongi nago.
5.— Sukaldaria naiz.
6.— Berandu etorri da.

**EUSKARA ARROPA BERRIAREKIN JAZTEN**

1.— A; 2.— E; 3.— D; 4.—C; 5.—A; 6.—F;
7.— E; 8.—B; 9.—C; 10.—D; 11.—B; 12.—F.

**EUSKARA SALDA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| A.— 10 | E.— 11 | I.— 4 | M.— 13 |
| B.— 14 | F.— 5 | J.— 3 | |
| C.— 2 | G.— 7 | K.— 9 | |
| D.— 8 | H.— 1 | L.— 12 | |

## SARIRAKO ARIKETA

**1 *** ..........................................
**2 *** ..........................................
**3 *** ..........................................
**4 *** ..........................................
**5 *** ..........................................
**6 *** ..........................................
**7*** ..........................................
**8*** ..........................................
**9*** ..........................................
**10*** ..........................................
**11*** ..........................................

**OHARRA:** Dakizuenez ariketa baten erantzunak besterik ez dituzue bidali behar (ale honetan 3. orrialdean duzue). Gainerako ariketen soluzioak beti azken aurreko orrialdean jarriko ditugu.

Bi pertsonendako afariaren irabazlea **Saldiasko Karolina Dominguez Telletxea** izan da. **ZORIONAK!!**

**Oraingo SARIA:**
Euskal liburu eta diska multzo frexkoa

## ALE HONETAKO SARIA ERAMAN NAHI BADUZU:

1.— Sarirako ariketa egin.
2.— Sarirako erantzunak jartzen duen lekura pasatu.
3.— Zure datuak atzean idatzi eta betiko lekuetara bidali:
* Leitzako Euskaltegia. Leitzako udaletxea (Leitzaldekoek)
* Bortzirietako Euskaltegia. Arretxea 22, Lesaka (Bortzirietakoek)
* Malerrekako Euskaltegia. Doneztebe (Malerrekakoek)
* Goizuetako Euskaltegia. Udaletxea. (Goizueta eta Aranokoek)
* Udaletxeko Bulegoa.Balleko etxea. Elizondo (Baztangoek)
* Larraungo udaletxean, Euskara zerbitzuan ( Larraungoek)
* Araitzko udaletxean , MAIOPEn ( Araitz-Betelukoek )

4.— Guk zuzenduko dugu eta hurrengo ETXETIK PLAZARAn erantzuna agertuko da.
5.— Saria, erantzunak bidali dituztenen artean banatuko da.
6.— Zozketan,**abenduaren 10a** baino lehen bidaltzen dutenek parte hartuko dute.

---

**Sariaren zozketarako datuak**

Izena _______________ Abizenak_____________________________
Adina_________
Helbidea:_________________________________ Herria:__________
Telefonoa:_____________

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso du.

Aldizkari honek Europako Komunitatearen Batzordearen dirulaguntza jaso du.

## MALERREKA

# Auzolana arautuko duen ordenantza onartu du Elgorriagako Udalak

Hemezortzi eta berrogeita hamabortz urte arteko herritarrek egin beharko dute

TTIPI-TTAPA

Elgorriagako udalak auzolana arautuko duen ordenantza onartu berria du. Alde batetik pertsonen lana arautu da eta hau derrigorrezkoa izanen da 18 eta 55 urte bitarteko elgorriarrentzat. Urtean hamar egun baino gehiago ez dira inoiz eginen, ezta hiru egun segidan baino gehiago. Normalean, larunbat goizetan eginen da eta bederen, bi egun aitzinetik abisua emanen du Udalak.

Garraio zerbitzua ere arautuko da ordenantza honen bitartez. Mekanika bidez mugitzen diren ibilgailuak ezin izanen dira urtean bortz egunez baino gehiago erabili eta gainerakoak, urtean hamar egunez. Erregaia Herriko Etxearen esku izanen da.



### Pala txapelketako finala

Joan den urtean bezala, Beatriz Lizardi igantziarrak eta Begoña Taberna lesakarrak osatutako bikoteak irabazi du aurten Baztan, Malerreka eta Bortzirietako emaztekien pala txapelketa. Finalean 35-31 irabazi zieten Edurne Argain eta Garbiñe Elizainzin gartzaindarrei. Hirugarren eta laugarren posturako lehian, Maritxu Altzugarai eta Estitxu Pierola almandoztarrak 35-28 irabazi zieten Erratzuko Dagerre ahizpei. Erreka elkarteak hirugarren edizioa antolatzeko asmoa azaldu du eta aurten laguntzaile izan dituen erakundeak eskertu ditu.



### Mikel Saralegi hilik agertu zen Doneztebeko Galbaialarre errekan

Mikel Saralegi Mindegia, 14 urteko gaztearen gorpua agertu zen azaroaren 16an Doneztebeko Galbaialarre errekan. Sortzez leitzarra bazen ere, hiru urteotan Donamarian bizi zen eta DBHko 3. maila ikasten zuen Donezteben. Itxuraz, egurrezko zubitik erori, konortea galdu eta itota hil zen.


GAZTELUKO OSTATUA
• Eguneroko menua eta karta
• Logelak
✆ 450105 • GAZTELU

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 630735 • IRUN ✆ (943) 622305





BEINTZAko OSTATUA
Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN





ORDOKI ALTZARIAK
Estilo guzietako mobleak
*Kalitatea prezio egokian*
*Ia 40 urteko esperientzia zure zerbitzura*
• Jangelak, tresilloak, gazteendako mobleak, auxiliarrak...
• Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurrira eginak
• Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
• Moble zaharrak eta zaharberrituak
**ERAKUSKETAK:** Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
**SALMENTAK:** Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - **LESAKA**

## GOIZUETA

# Herriko bi kirolari mundu guztiaren ahotan

### Aldaketa haundiak Joxemari Bakero eta Joxemanuel Etxeberriaren kirol ibilbideetan

ESTEBAN AROZENA

Herrian futbol zelairik ez izan arren puntapuntako hiru futbolari eman ditu Goizuetak azken urteotan. Hauetatik bi aspaldi xamar erretiratuak daude (Xanti Bakero eta Joxemanuel Etxeberria) eta bestea, Joxemari Bakero, futbol zale diren eta ez direnen ahotan dabil aspaldian, bederatzi denboraldi Bartzelonan jokatutakoan, hurrengo hiru urtetarako Mexikoko Veracruz taldera doalako, hain zuzen ere.

33 urteko Yandeneko mutil honen tituluen zerrenda ikaragarria da: 6 Liga, 4 Superkopa, 2 Kopa, Errekopa 1 eta Europako kopa 1 eskuratu ditu, hamazazpi urterekin Errealean debutatu zuenetik. Gainera, lehen mailan egin dituen 17 denboraldietan 471 partidu jokatu ditu, 139 gol sartuz.

**URRUTINEAKO JOXEMANUEL ETXEBERRIA OSASUNAN**

Joxemarirena bezain goraipatua ez baldin bada izan ere Joxemanuel Etxeberriaren lana, meritu haundikoa da, zalantzarik gabe, Urrutineako mutilak egindakoa. Bera da Osasunaren historia osoan golik gehiena sartutakoa, baita partidu gehiena jokatutakoa ere. Honetaz gain, botak zintzilikatu zituenetik garrantzi haundiko postuak bete ditu Iruñeko taldean, gerentearena eta direktiboarena, besteak beste. Halere, gaur egun jendearen ahotan baldin badabil, Zabaltzak bere laguntzaile edo bigarren entrenatzailerako hartu duelako da. Jubenilak zuzenduz ia titulu guztiak lortu ditu dagoeneko Joxemanuelek eta oraingo hau aurrerapauso haundia izan da bere karreran. Azken hilabeteetan Etxeberriaren izena askok aipatu dute Osasunaren entrenatzailearen posturako eta epe motzean lortu omen dezake helburu hau, futbol adituek diotenez.

**Azienda katastroa**

Azienden katastroa abenduaren 13an egin beharko da aurten, Herriko Etxeko bulegoetan.





**Yandeneko Joxe Mari eta Urrutineako Joxe Manuel, herriaren izena munduan ezagutarazi duten bi kirolariak**

## ARESO

# Eskolako leku falta arazoak konpontze bidean

### Bi trinketetan obrak egingo dira horretarako

JUANA Mª SAIZAR

Eskolako leku falta arazoa urte bukaerarako konpondua egon behar du, Hezkuntza Departamenduak hartutako erabakiaren arabera.

Eskolak dituen bi trinketetan obrak eginen dira. Ezkerrekoan kristalez itxi, sabaia jeitsi, zola egokitu eta kalefakzioa jarriko da, gimnasia eta musika ikasgaiak emateko moduan. Eskuinekoan, berriz, sabaia eta ezker pareta txukunduko dira, esku pilotan eta beste kiroletan aritzeko.

Obra hauen kostoa 6 bat milioikoa omen da eta %70 inguruko subentzioa emanen du Hezkuntza Sailak. Hau idazterako momentuan obrak ez zaizkio inorreri adjudikatu, sartu diren aurrekontuak altuegiak omen dira eta.

Bestalde, Eskola Kontseiluko hauteskundeak azaroaren 26an ospatu ziren eta berriro ere Trini Miranda izan da garaile eta bera izango da lehendakaria. Abenduaren 5ean beste hauteskundeak izango dira eskolan, Guraso Elkarteko zuzendaritza batzordearen idazkaria, diruzaina eta lehendakari ordea aukeratzeko.



**Eskolako trinketeetan moldaketak egin beharko dira Hezkuntza sailak adierazi duenez**

☞ LEITZA

# Bi lanpostu eskaini ditu Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Bat Gizarte Laguntzaile izateko eta bestea administrazioan aritzeko

JOSEBA AZPIROZ

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua kudeatzeko Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Mankomunitateak, gizarte-laguntzaile izateko lanpostu bat eta administrari laguntzaile izateko beste bat (hau egun erdikoa), oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiak atera ditu.

Izendatuak lan-kontratatu finkoak izanen dira eta gizarte-laguntzaileak 2.575.790 pezetako soldata gordina izanen du urtean eta administrariak, berriz, 897.624 pezetakoa. Izena emateko epea abenduaren 13an bukatuko da eta Osasun Etxean dagoen gizarte-laguntzailearen bulegoan aurkeztu behar da.



## Nafarroa eta Euskadiko komunitateen arteko lankidetza organoarekin bat egin zuen Udalak

Nafarroako Gobernuak Euskal Komunitate Autonomoarekiko onartu zuen lankidetza iraunkorraren testu, filosofia eta edukiarekin bat egin du Udalak. "Bere etsipena, hiritar nafarren herri borondatea, Nafarroako Legebiltzarraren legezko ordezkariek agertu zutenez, hurbilago aurkitzen dela EKAkin, gure kultur, hizkuntz eta historia sustrai berdinetan oinarritutako hurbiltasun, lankidetza eta elkarlanerako etorkizuna lortzeko, UPNk gai horrengatik nafarren artean sortu nahi izan duen giza borroka politikoa baino" zioen mozioa onartu zen, EAren aldeko botoekin, HBren abstentzioarekin eta UILren aurkako botoekin.

### Lur trukatzeak onartu ditu Nafar Gobernuak

Nafarroako Gobernuak onartu berri ditu Udalak Arsotegieta, Txopillo, Olaso, Ozparrun, Juanaborda, Aurtxikiena, Kortaborda, Soroa Behikoa, Aierrea, Martinmielenea, Sorobarren inguruetan eta Catalina Billabona, Patxi Astibia eta Patxi Zubiturrekin egin dituen lur-trukatzeak. Denetara, 170.816 metro karratu eman ditu Leitzako udalak herri lurretatik eta 173.337 metro hartu ditu partikularretatik.

Modu honetan, hedatuta zeuden partikularren lurrak bildu eginen dira.

## ▼ flash

**❖ Hondakin Solidoen Bilketarako**
Zerbitzuaren Batzordea bildu zen azaroaren 12an eta Zerbitzu hau mankomunitate bihurtzearren, estatutu proiektu bat prestatu zuen. Egitasmo hau Udal Idazkaritzan hilabetez izanen da, interesatua dagoenak aztertu eta alegazioak aurkezteko aukera izan dezan.

**❖ Zine denboraldia**
Emanaldiak ostiraletan, gaueko 10etan eta igandetan, 5etan eta 7etan dira. Aurrerako bolondresak izanen dira pelikulak proiektatzeaz arduratuko direnak.

**❖ Euskaraoke**
Ixiar Oreja eta Iñaki Urdanpilletak aurkeztu eta ETBk emititzen duen *Euskaraokea* programa Leitzan grabatuko dute abenduaren 19an, arratsaldeko 5,30etan. Unitate mugikorra, eszenatokia, soinua... ordu horretarako prest edukitzeko goizeko 8etan hasi beharko omen dute lanean.

ETXANDI TXOKO erretegia
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu
Eta ezkontzea pentsatu baduzu, harrituko zaitugu!
Basa Kabi
Tel. 51 01 25 • Faxa: 61 09 65
LEITZAko Gaina

SALDIASko zerrategia
Eraikuntzarako estrukturak eta enbalajeak
Zubizarra, ✆ 615108 eta 615044 • SALDIAS

GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 •
LEITZA

## BAZTAN

# Nafarroako Landa-Etxeen ofizina, Oronozko San Martin eskolan

### Bazkideendako denda ttiki bat ere paratu dute bertan

JOSEBA IGARABIDE

Nafarroako Landa-Etxeen Federazioko bulegoa Oronozko San Martin eskolan kokatu da, azaroaren erdi aldetik aitzinera.

Bertan arituko den langilea ere Iruritakoa izanen da, Elena Azkarraga eta elkartearen telefonoa 592177a da.

Emma Tomasone, Nafarroako federazioko lehendakariordea den aniztarraren ustez, *"lekuz aldatzeko arrazoi nagusia, Burlatako egoitzak kostu haundiak zituela da. Hemen merkeagoa izatea espero dugu. Gainerakoan bazkideek ez dute aldaketa haundirik somatuko, lehen ere gutitan joaten baitziren egoitzara"*. Honetaz gain, elkarteko kideei oinarrizko erosketak egiteko aukera eman nahi zaie eta denda ttiki bat zabalduko da. *"Olioa, komuneko papera, serbilletak... eta horrelakoak salduko ditugu. Sobera iduritzen zait ekonomatoa deitzea"*.

Nafarroako Landa-Etxeen Federazioak 170 bazkide inguru ditu gaur egun, eta *"horietatik hirutan hogeita hamar bat dira gure eskualdekoak"* Emma Tomassoneren erranetan.



Emma Tomassone, Landa-Etxeen federazioko lehendakariordea — Artxibokoa

### Balleko Etxea Euskadi-Nafarroa Organoaren alde

Nafarroako Gobernuak Euskal Komunitate Autonomoarekiko onartu zuen lankidetza iraunkorraren testu, filosofia eta edukiarekin bat egin du Balleko Etxeak EAren aldeko botoekin. UPNk berriz, kontrako botoa eman zuen, mozioan UPNK nafarren arteko konfrontazio soziala eta politikoa bultzatu duela adierazten zelakoz. Ustarroz zinegotziaren erranetan, ordea, *"UPN bere boto emaile gehienen borondatea defenditzen saiatu da"*.

### Bazkalekuen hobetzea

Narbarteko Luciano Iriartek eginen ditu Baztango herri lurretako bazkalekuen hobetze lanak, 13.363.666 pezetaren truke. Zehazki, Mizpizelai, Barrantxekoborda, Perurena, Artxekokasko, Antxotebide, Indaburu, Arleta, Armalla, Uzkue, Bailei, Zubiet eta Idoia inguruetako belagiak hobetzeko kontrata egin dio Balleko Etxeak.

### Garapen agentearen kontratua urtebetez luzatu da

Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko garapen agenteari bertze urte baterako kontratua luzatzea erabaki du Balleko Etxeak. 4.893.211 pezetakoa izanen da soldata kostua eta bertze 575.000 pezeta, Agentzia berari dagokion gastua.

Hau ordaintzeko, bi milioi pezetako dirulaguntza espero da INEMetik, bertze milioi erdi bat Europatik eta bertze 2.968.211 pezetak Herriko Etxeek ordaindu beharko dute biztanlegoaren arabera (2.727.152 pezeta Baztanek, 153.709 Urdazubik eta 87.350 pezeta Zugarramurdik).

Joan den urteko memoria ere aurkeztu du garapen agenteak.

## flash

**Arizkungo frontoiaren** barnealdearen margotze lanak Jagoba Zubikoak eginen ditu 736.020 pezetaren truke. Lanak urte bukaera baino lehen akitu beharko dira eta Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak zati bat subentzionatuko du.

**Txalaparta ikastaroa** Baztango Gazte Asanbladak txalaparta ikastaroa antolatu du eta arrakastatsua suertatu da, 22 lagunek izena eman baitute.

**%0,7aren alde** Hirugarren Mundua deitzen dugun herrialdeei aurrekontuen %0,7a emateko eskatuz kanpaina hasi da Iruritan, bigarren urtez.

**Mutildantza ikastaroak** 15 urtetik goitikoentzat mutildantza ikastaroak antolatu nahi dira. Horretarako bilera egin zen ikastolan, baina parte hartu nahi duenak Baztango dantzariekin harremanetan jarri behar du.

**Amaiurko** mediku kontsulta moldatzeko lanak Elizondoko Jose Mª eta Juan Mª Oskarizek eginen dituzte 2.294.084 pezetaren truke (BEZ barne).

BAZTAN
FUNERARIA
EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoak: 580373 • (908) 776176

ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK
Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO

JATETXEA
Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

## BAZTAN

# Mendialdeko Berrikuntza Programarako proiektuak aurkeztu ditu Balleko Etxeak

Elizondoko ikastolako parkea eta Iruritako plaza turismorako txukunduko dira

TTIPI-TTAPA

1995-1999 urte arteko Leader II programaren barnean, Nafarroako Mendialdeko nekazaritza-berrikuntzarako egitarauan zenbait proiektu aurkeztu ditu Balleko Etxeak.

Honela, landa turismoari dagokionez, Elizondoko ikastolako parkearen egokitzea eta Iruritako plazaren moldatzea sartu dira.

Enpresa ttiki, artisautza eta zerbitzuei eskainitako atalean, Arizkun-Ordokiko industrialdearen urbanizaziorako eta udal haurtzaindegirako dirulaguntza eskatu du Balleko Etxeak.

Nekazal produkzioaren balorazio eta komerzializazioari ematen zaion dirulaguntzen artean, datorren urteko udaberriko ferirako eskatu da eta Ingurugiroaren hobekuntzari dagokion sailean, Bergara eta Beartzungo zabortegien berreskuratzeko proiektua aurkeztu du udalak.



## Oronozko El Carmen ikastetxea salduko du Urrutia Fundazioak

JOSU INZIARTE

Azaroaren 24an jende aunitz bildu zen oronozko herriko batzarrean, bertan tratatu behar ziren gaiak garrantzitsuak baitziren. Hauetatik, El Carmen ikastetxearen salmenta eta haurren eskola lekuz aldatzea izan ziren nagusiak.

Urrutia Fundazioak, El Carmen ikastetxea saltzeko asmoa du, eta hau egin ondoren, ateratzen den dirua herrian geratuko da, honela baitio fundazioaren ordenantzak. Badirudi, bat baino gehiago ikastetxea ikusten egon dela, erosteko asmoarekin.

Ondorioz, eta eraikuntza egoera nahiko kaxkarrean dagoela kontuan hartuz, herriko eskola ere lekuz aldatuko da. Herriko umeek orain arte El Carmenen ikasten bazuten ere, orain San Martin Lanbide eskolara aldatuko dituzte, bertan bi ikasgela egokitu ondoren.

Aunitz urtez Batxillerato klaseak eman ziren El Carmen ikastetxean.

### flash

**Elizondoko batzarra**
Balleko Etxeak Elizondoko herriari emandako dirua Oteizaren eskulturan gastatzea erabaki zen. Elizaren ezkilen funtzionamendua argi indarraren bitartez jarri behar dute eta horretarako diru eskea eginen dute etxez etxe. Eguberriei begira, Ziga, Saskaitz eta Maurizio eta Felix plazak apainduko dituzte alkate eta kargodunek eta etxetako kalariak, leihoak eta gorapeak apaintzea eskatu dute.

**Xexili Egunean**
zenbait ekitaldi burutu zituzten musika eskolako ikasle eta irakasleek.

**Euskaraoke**
Euskal Telebistako *Euskaraoke* saiorako grabazioa egin zuten azaroaren 28an Elizondon.

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
TELAK:
*Forro Polarrak, abrigoak, gonak...*
ESKULANETARAKO MATERIALA:
*Klase guzitako materialak*
MODAKO ARROPA
*Konjuntoak, jertseak...*

*Eskisaroi jatetxea*
Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

ARLA
ARDOTEGIA
Ardoak • likorrak • freskagarriak
Santiago 56 • ELIZONDO
✆ 453266 (etxekoa) ✆ 452473 (bodega)

GAS SASKAITZ
fontanería
calefacción
Empresa colaboradora de REPSOL BUTANO
Era guzietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

## SARA

# Telethon myopathiaren garaitzeko kanpainakari ekitaldiak abendoaren 7an

Bertzalde, Joko Berri txapelketa urte berriarekin hasiko da

MIXEL ETA JACQUELINE

"Telethon" myopathiari buruzko ikerlanen sustengatze urratsak abendoaren 7 eta 8an iragaitekoak dira frantses lurraldean. Sarari doakionez, Turismo bulegoak abendoaren 7an ekitaldi andana bat antolatzen du. Erran gabe doa herritar guzieri dei egina dela eta bakoitzaren parte hartzea biharko garaipenaren zati bat izanen dela.



Aspaldiko urteotan Sarako pilota eskolak egiten duen lanari esker antolatu ahal dira gisa honetako txapelketak  Artxibokoa

### Joko Berri lehiaketa urtarrilean

Sarako Izarra pilotari zor diogu lehiaketa hau. Iaz berrogoita hamar bat bikotek parte hartu zuten eta aurten ere arrakasta berdintsua ukan behar luke.

Bi hitzez erraiteko, joko hau polikiroldegiaren zabaltasunean jokatzen da ezker pareta moduan, bainan ezkerrean trinketetako taula erabiliz.

Izenak oraindanik eman daitezke, pilotaz arduratzen diren jendeeri.

### Literatur lehiaketa

'Atxuriatik Larrunerat' izeneko kulturhilabetaren barnean, literatur lehiaketa antolatu da. Gure inguruko mendiei buruz, Sara, Azkain, Zugarramurdi eta Berako haurrei (12 urtetik behitikoak eta bi mailatan banatuak: 9 urte arte eta 10urtetik 12etarat) ixtorio, gertakizun, kondaira edo ipuin bat idaztea galdetua izan zaie. Honela, abenduaren 22an, igandearekin, arratsaldeko 4etan, Omordian, literatur lehiaketa honetan sariztatuek beren idazlanak aurkeztuko dituzte eta sari bat emanen zaie.

Ondotik, Koldo Amestoy kondalariak aurkeztuta *'Urdinola'* ipuinaldia eskainiko da.

Sartzea 20 libera gostako da, 10 libera haur, ikasle eta langabezian direnentzat.

Ekitaldi hauen barnean, igande honetan kantaldia izan ginuen. Jojo eta Ramuntxi, Amaia Zubiria, Maite Idirin eta Pascal Gaigne eta Josu Goia beratarra izan ziren kiroltegian.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENTZIA

**Salmentak**

**• BERA:**
- Moldatu beharreko etxea, bere lur eremuarekin.
- Lur eremu industriala
- 3.000 m²ko lur eremua, famili bakarreko etxebizitza egiteko egokia.

**• IGANTZI:**
- Etxea lur eremuarekin. Estreinatu gabea. AUKERAKOA.

**• ARANTZA:**
- 3.200 m²ko lur eremua, herriaren ondo-ondoan. AUKERAKOA.

**• ORONOZ-MUGAIRI:**
- Pisu bikaina, sukalde ekipatua, 3 logela eta egongela. AUKERAKOA.

**BORTZIRIETAN etxeak, baserriak, bordak edo eraikitzeko lurrak erosiko nituzke**

**Errentan emateko pisuak, etxeak, baserriak eta lur eremuak BEHAR DITUGU.**

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

**MENDIALDE Jatetxea**



**Etxeko gasnak saltzen ditugu**

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

Baztanen...

ESTHER

LOREDENDA • GARDEN CENTER

**ESTHER FUNERARIA**

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak Beztitzeak, etab...

**24 orduko zerbitzua**

Eta Iruñean...

**IRACHE TANATORIOA**

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Telefono mugikorra: 989. 706614
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • **ELIZONDO**

## ☞ ZUGARRAMURDI

# Domingo Peri, ziriko-erretzaile zaharrena azaroaren 20an zendu da

Aitak indioengatik ikasitako erretzeko manera hedatu zuen herrian

MARGARI ETA KORO

Gan den azaroaren 20ean hil zitzaigun herriko gizon ospetsu bat: Domingo Peri, bizirik zegoen zikiro-erretzaile zaharrena. Gaur egun, Zugarramurdin dagoen zikiro erretzeko modua Domingoren aitak ekarria zuen Argentinatik, bere familiarekin itzuli zenean. Domingo bera zazpi urte baizik ez zituelarik hasia zen aitari lan hauetan laguntzen eta gero, Domingo berarengandik ikasia dute orain dauden erretzaileek. "*Zikiroa erretzeko modu hau indioengandik ikasi zuen aitak*" zioen Domingok.

Hori dela eta, 1989. urtean jaso zuen herriak eskeinitako omenaldi bat. Ezagunak ziren, eraberean, bere umore ona eta ateraldiak, ez baitzinen berarekin mintzatzen ahal irri batzuk bota gabe, eta umore hau atxiki zuen azkeneko momenturaino.

Domingo, zauden tokitik har ezazu Zuamurdiarren agurra eta eskerrik beroenak.



**Domingo Perik, Argentinan bere aitak ikasitako zikiroa erretzeko modua hedatu zuen Zugarramurdin**

### Kinto Realeko ehizi egunak

Elizondoko Ehizi eta Arrantza elkartean zozketa egin ondoren, hauek dira Zugarramurdiko taldeari ehizira joateko egokitu zaizkion egunak:

Basurde ehizirako: abenduaren 5 eta 21a eta urtarrilaren 2a.

- Basurde, orein eta basauntz ehizirako: abenduaren 6 eta 15a eta urtarrilaren 12a.


**SOULE**
**Gurutze eta hilarriak**
✆ 453038 ARIZKUN
✆ 123572 IRUÑA

**ARLA**
**ARDOTEGIA**
Ardoak • likorrak • freskagarriak
Santiago 56 • ELIZONDO
✆ 453266 (etxekoa) ✆ 452473 (bodega)

**MENDI OSTATUA**
Santiago 25 - ✆ 580313
ELIZONDO

**IKASOFT**
Konekta zaitez INTERNET-era eta ikasi gurekin
@ Internetera konektatzeko zerbitzu publikoa
@ Internet ikastaroak
@ Informatika prestakuntza gela
@ Informatika ekipoen salmenta
@ Sareen instalazioa eta moldatzea
@ Internet banatzailea
@ WEB orrialdeen diseinu eta programazioa
Cipriano Larrañaga, 3 behea
IRUN
Faxa eta Tfnoa: (943) 61 46 85

**muñeca de Trapo**
IRUN
Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

**BODEGAS ERRASTI, S.L.**
Bodegas Gailur
ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA
Zonarako banatzailea
**TXOPORRO Ardoak**
M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO
✆ **58 02 78**

## EZKONTZAK

**Pedro Etxarte Anzizar** eta **Mª Lourdes Beloki Mendizabal**, Lesaka eta Oreretakoa, azaroaren 9an.
**Alejandro Mujika Zabaleta** eta **Mª Pilar Unzu Senosiain**, Leitza eta Burlatakoa, azaroaren 9an.
**Jose Antonio Arburua Urtxegi** eta **Mª Begoña Sagastibeltza Ezkurra**, Bera eta Leitzakoa, azaroaren 16an.
**Eugenio Zubieta Garbalena** eta **Mª Soledad Ilzauzpe Barrenetxe**, Erratzukoak, azaroaren 9an.
**Luis Mª Bengoetxea Altzaga** eta **Mª Belen Zubieta Manterola**, Irun eta Lesakakoa, azaroaren 9an.
**Francisco Gonzalez Iturria** eta **Mª Rosario Jaimerena Sarratea**, Elizondo eta Zigakoa, azaroaren 16an.
**Francisco de Asis Nabal Vicuña** eta **Mª Cristina Goienetxe Irigoien**, Donostia eta Elizondokoa, irailaren 28an.
**Juan Jose Txoperena Matxikote** eta **Isabel Akerreta Larraz**, Igantzikoak, azaroaren 16an.

## JAIOTZAK

**Igone Salinas Indakoetxea**, Lesakakoa, azaroaren 6an.
**Mattin Garbisu Zozaia**, Lesakakoa, azaroaren 19an.
**Josu Andoni Irurzun Luna Vitoria**, Lesakakoa, azaroaren 22an.
**Haizea Meoki Martinez de Icaya**, Elizondokoa, urriaren 29an.
**Itxaso Iriarte Elizagoien**, Elizondokoa, azaroaren 9an.
**Xabier Zugarramurdi Elizalde**, Goizuetakoa, azaroaren 19an.
**Jennifer Zelaieta Lazkano**, Berakoa, azaroaren 9an.
**Ainhoa Garciarena Hualde**, Doneztebekoa, azaroaren 10ean.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA** 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO** polit bat oparitzen diegu. Amendako **"Está creciendo"** liburua daukagu.
IRUÑEKO KUTXA

## HERIOTZAK

**Pilar Gallano Churrut**, Berakoa, azaroaren 3an, 78 urte.
**Joaquin Leitza Jorajuria**, Arantzakoa, azaroaren 16an, 75 urte.
**Jose Mª Garziarena Perurena**, Leitzakoa, azaroaren 16an, 60 urte.
**Pedro Martin Arginarena Elorga**, Erratzukoa, azaroaren 12an, 75 urte.
**Gregoria Iribarren Elizetxe**, Arizkungoa, azaroaren 16an, 89 urte.
**Juan Maria Mendiburu Iturbide**, Azpilkuetakoa, azaroaren 27an, 32 urte.
**Juana Iturria Galarza**, Elizondokoa, azaroaren 25ean, 76 urte.
**Mikel Saralegi Mindegia**, Donamariakoa, azaroaren 16an, 14 urte.
**Domingo Peri Mendiburu**, Zugarramurdikoa, azaroaren 20an, 89 urte.
**Simon Antonio Garcia Santiago**, Berakoa, azaroaren 19an, 72 urte.
**Miguel Orkin Iraizoz**, Doneztebekoa, azaroaren 23an, 88 urte.
**Marcelino Mariñelarena Iraizoz**, Donamariakoa, azaroaren 24n, 80 urte.
**Emilia Santesteban Mutuberria**, Zubietakoa, azaroaren 21ean, 84 urte.

†

*Ixilean sofritu zenuen, itxaropenean hil zara*

# JUAN MARI MENDIBURU ITURBIDE

*Jaungoikoak eraman zintuen 1996ko Azaroaren 17an, 32 urte zenituela*

*Gaur izarrak*
*zabaldu dira*
*zuri bidea*
*argitzeko,*
*mingarria eta zaila da*
*zuri adio erraitea, horregatik*
*beti-beti, gure bihotzean*
*izanen zara Juan Mari* ***(Xapalo)***





Zure emaztea **Aliziak** eta maite zintuzten guziek,
ez zaituzte behin ere atzenduko.

KOLABORAZIOAK

Juainas PAUL *Kultur Zurkaitzako kidea*

# Irailak 21. Kultur Zurkaitzaren balorazioa



Zenbait egunetan, gehienetan, epe bateko emaitzak sasoitzen dira. Are gehiago Kultur Zurkaitza bezalako elkarte batek, indarrak data eta ekitaldi konkretu baten inguruan arituz gero.

Bi hilabete pasa ondoren, Mikel Laboa eta Ruper Ordorikarekin kantaldia egiteak merezi zuen ala ez erabakitzeko momentu aproposa dela dirudi.

Zuriak, grisak eta beltzak. Zuria alaia baldin bada, beltzak ilun dira urriro euritsu honetan, eta grisak, ugarienak, beti nagusi izateko ohitura guztiz erreala izanik, edozer eta edonori tartea ematen dio.

Zuritzat har daiteke, neurri batean, Kultur Zurkaitza bera jendearen aurrean ezagutarazteko lortutako emaitza. Horretan kantaldia bera, herriz herri egindako erakusketa, TTIPI-TTAPArekin batera banatutako aldizkaria eta Xorroxinen eman zitzaion laguntza probetxugarriak izan ziren hori lortzeko. Lehena izateko ez zen gaizki atera. Zuria, doike, kantaldia berak izan zuen maila.

Grisa, iluna, askok galdu zenuten aukera. Asko horietarik gehienak eskualdekoak izateak Kultur Zurkaitzaren porrota areagotzen du. Izan ere kantaldira etorritako gehienak urrutitik etorriak ziren, eta gure asmoa eskualdeko jendearengana bideratua zegoen nagusiki, gure esfortzua, propaganda eta gogoa. Gurea bai beltza!

Grisa suertatu zen baita, gure arteko deskoordinazioa. Zortzi elkarteren elkartea izanik Kultur Zurkaitza, lana egiteko garaian behelaino grisa hedatu zen. Baztandarrek, orokorki, eta Xorroxinekoek bereziki eraman zuten zama gehiena, Baztanen ospatzeak justifikatzen ez duen neurrian. Behelaino hori erre-usainik utzi gabe altxatzen bada, gris argia. Hala bedi!

Beltza, Egin-ekoen salbuespenarekin, komunikabideen jarrera, harrera, gogoa eta fundamentua. Esaterako, EITB. Jakinen gainean egonik eta inungo aipamenik egin gabe, kantaldira 'sartu' ziren eta hurrengo egunean telefonoz deitu zuten xehetasunak eskatzeko. Lotsagarria!

**Hau guzia ikasiko bagenu, zuzentzeko gauza izanen bagina, gure hausnarketari tokia eginen bagenio... beltza zuria bihurtuko da, grisak argituko eta koloreak bereizten aritzea ergelkeria dela ikusiko da. Gora baikortasuna!**

Eta beltza, zeharo beltza, Bertiz Partzuergoarekin egin genuena. *Megaplan*-ek erabiltzen duen inprentaren akatsak, Doneztebeko Euskaltegiaren izena eta Partzuergoaren laguntza ez baitzituen argitaratu. Ez zegoen zuzentzeko modurik. Arras damuturik gaude eta barkamenak publikoki eskatu nahi ditugu. Onar ezazue, mesedez.

Hau guztia ikasiko bagenu, zuzentzeko gauza izanen bagina, gure hausnarketari tokia eginen bagenio... beltza zuria bihurtuko da, grisak argituko eta koloreak bereizten aritzea ergelkeria dela ikusiko da. Gora baikortasuna!

# Zinea

## Leitzan eta Donezteben hasia dute denboraldi berria

Aurten ere, bertze urtetan baino beranduago izan arren, Leitza eta Donezteben zine denboraldiari hasiera eman zaio. Aurreko alean Donezteben (475 pezeten truk) ikusgai izanen diren pelikulen zerrenda eskaintzen genizuen. Orain, berriz, Leitzan ze pelikula izanen ditugun erranen dizuegu.

Abenduaren 13an, *Streptease* pelikula famatuarekin jarriko da martxan Aurrera elkarteko boluntarioek proiektatzen duten pelikulen zikloa.

Emanaldiak ostiraletan, gaueko 10etan eta igandetan arratsaldeko 5etan eta 7etan izanen dira. Prezioak 150 Pta. igande arratsaldetan eta 450 Pta. ostiral eta igande iluntzetan.

Zein egunetan oraindik zehaztu gabe badago ere, hauek izanen dira ikusi ahal izanen ditugun pelikulak: *Misión imposible*, *Trainspotting*, *Pena de Muerte*, *Jumanji* eta *Toys Story*, besteak beste.



Doneztebe eta Leitzako zineak


...eta nolako osagarriak!

ARTESANOS CAMISEROS

IRUNen...
Fuenterrabia, 2 • IRUN
Tfnoa.: (943) 61 44 68

**Neurrira egindako atorrak eta blusak GIZON, EMAKUME eta HAURRENDAKO**

Eskulangintza eta Teknologia elkartu ditugu zure atorrak egiteko. Aukera itzazu gehien gustatzen zaizkizun telak eta estiloak 170 modelo desberdinen artean.

4.900 Pta.tik gora

Neurriak gorde egiten ditugu ordenagailuan. Hurrengo batean tela aukeratu eta listo!

koxkonta




Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

# Lesakako Beti Gazte areto-futbol taldea bosgarren urtez Gipuzkoako 2. mailan

- Maila mantentzea izanen dute helburu nagusia
- Urteko ia 225.000 pezetako aurrekontua erabiltzen dute

AITOR AROZENA



Beti Gazte areto-futbol taldeak seigarren denboraldiari ekin dio — Argazkia: Aitor

1991-92 denboraldian lehen aldiz aritu zenetik, seigarren denboraldiari ekin dio Lesakako Beti Gazte elkarteko areto-futbol taldeak. Lehen urte hartan, Gipuzkoako hirugarren mailatik bigarrenera igotzea lortu zuten eta kategori horretan mantentzen da geroztik. Hau idazterakoan, zazpi partidu jokatuak dituzte, horietatik 2 irabaziak, 2 berdinduak eta 3 galduak. 27 gol sartu dituzten bitartean, 25 jaso dituzte bere atean. Hamalau talderen artean 8. daude.

Denboraldia hasterakoan, lehen mailan aritzeko aukera eskaini zioten taldeari, Gipuzkoako ligan izandako birmoldaketa baten ondorioz. Beti Gaztek uko egin zion ordea. Rafa Retegi entrenatzailearen ustez *"gure intentzioa ez da kategoriaz goitzea, jokatzea eta kirola egitea baizik"*.

Aurrekontuari dagokionez, berrogei mila duro pasatuxea da, *"gehien bat arbitraiak, fitxak eta elkarteak ordaintzen dituen desplazamenduak ordaintzeko"*. Sarrerarik kobratzen ez dutenez, zenbait lan egin behar izaten dituzte jokalariek urtean zehar, diru hori nolabait kitatzeko. *"Bertze taldeekin txandatuz, Preferenteko futbol taldearen Lesakako partiduen sarrerak kobratzen ditugu eta urtero antolatzen den futbito txapelketaren antolaketa ere gure esku dago"* dio entrenatzaile igantziarrak.

## Banan Bana

| Jokalaria | Herria | Adina |
|---|---|---|
| Xabi Zugarramurdi | Arantza | 27 |
| Javier Zubieta | Lesaka | 22 |
| Xabi Altzuri | Arantza | 24 |
| Joxe Mari Altzugarai | Lesaka | 30 |
| Juankar Unanua | Igantzi | 25 |
| Fernando Zoco | Lesaka | 26 |
| Pali Hidalgo | Lesaka | 22 |
| Aingeru Irigoien | Igantzi | 30 |
| Andoni Olabarri | Lesaka | 26 |
| Migel Angel Sarobe | Lesaka | 21 |
| Aitor Igoa | Lesaka | 24 |
| Imanol Igoa | Lesaka | 26 |
| Rafael Retegi | Entrenatzailea | |

**Rafa RETEGI** *entrenatzailea eta delegatua*

## «Indarra eta gogoa dira taldea definitzen duten ezaugarriak»



**■ *Zein helburuarekin hasi duzue denboraldia?***

❑ Gure helburu nagusia maila mantentzea izanen da eta hori nahiko errex lortuko dugula iduritzen zait. Ez dut uste kategoriaz igotzea inork pentsatu duenik.

**■ *Nola definituko zenuke zure taldea?***

❑ Fisikoki ongi prestatzen gara, batez ere teknika aldetik nahiko erdi mailakoak garela kontuan hartzen badugu. Fisikoa eta jokoa gogoekin hartzea dira gure ezaugarriak. Halere, faltan sumatzen dut joku antolatzaile bat edo golak aisa sartuko lituzkeen aurrelari bat. Futbitoan horrek aunitz erran nahi du taldearentzat.

**■ *Zer nota jartzen diozu egindako lanari?***

❑ Sei bat paratuko nioke, orain arteko sailkapenaren araberakoa.



## Joxe Mari Bakero goizuetarra Bartzelona futbol klubetik Mexikoko Veracruzera

Azaroaren 18an jokatu zuen Joxemari Bakero goizuetarrak bere azken partidua Bartzelona futbol klubeko kamisetarekin. Ez nolanahi gainera, berak ukitutako azken baloia gola izan baitzen. Ondotik, aldatu egin zuen entrenatzaileak, txalo zaparrada baten artean. Honela, partidua hasi aurretik Nou Camp zelaira bildutako zaleek egindako ongietorriari eta omenaldiari erantzun zion goizuetarrak.

Bakerok sei liga irabazi ditu, bi Donostiako Errealarekin eta gainerakoak Bartzelona futbol taldearekin, guztira 148 gol sartuz. Zenbait aldiz internazionala ere izan da.

Orain, Mexikoko Veracruz taldean jokatuko du Joxemarik, hiru urterako eskaintza bikaina egin baitiote bertatik.



# Donato Larretxeak Nafarroako aizkolarien txapela jantzi du

- 48 segunduko aldea atera zion Nazabaleri Doneztebeko finalean
- Eratsungo Juanito Mariezkurrena zena omendu zen

Donato Larretxea arantzarrak Nafarroako aizkolari txapel nagusia bururatu zuen hirugarren aldiz Doneztebeko ferietan burututako finalean. Larretxeak 26' eta 8" behar izan zituen hamar pago-enborrak botatzeko. Etxarri Aranazko Floren Nazabalek bigarren postua eskuratu zuen, 48 segundu gehiago erabiliz lana akitzeko. Hirugarrena Miel Mindegia zubietarra izan zen (27' 45"); laugarrena Olagueko Antonio Senosiain (29' 22") eta bosgarrena Felix Etxeberria sunbildarra (30' 04"). Lehenbiziko enborrean ezik (Nazabalek moztu zuen lehenik), gainerakoetan Larretxea ibili zen aitzinetik.




**Euskal Herrikoa lortu ez bazuen ere, Nafarroako txapelari eutsi zion Larretxeak**

#### DENBORA ONAK

Orokorrean denbora onak egin ziren Doneztebeko saioan. Donatok lau segundutan hobetu zuen iazko marka, Nazabalek ia minutu terdian eta Senosiainek 4 minutu eta 25 segundutan. Mindegiak zazpi segundu gehiago behar izan zituen lau kanaerdikoak, lau 60 ontzakoak eta oinbiko biak mozteko.

Txapeldunak adierazi zuenez, irabazteko mentalizazioa eraman zuen Doneztebera eta erritmoari eustea izan zen garaipenaren gakoa. *"Lehenbiziko enborrean adarra atera zait eta bigarrenean kirtena hautsi dut. Hasierako enborretan aunitz erran nahi du horrek, baina ikusten nuen menderatuko nituela".*

#### ERATSUNGO JUANITO MARIEZKURRENARI OMENALDIA

Doneztebeko frontoia 500 lagunek bete zuten, feria egun nagusia ospatu eta Nafarroako txapela jokoan izateaz gain, Eratsungo Juanito Mariezkurrena, duela hilabete batzuk zendu zen herri kirolzale amorratua, omendu baitzen. Tere Etxeberria emazteak eta bi semeek jaso zuten lore sorta.

## BOTE pronton

- **Berako areto-futbol txapelketa**
Abenduaren 26tik 30era areto-futbol txapelketa jokatuko da Berako Toki-Ona polikiroldegian, emakumeei nahiz gizonezkoei zabaldua. Izena abenduaren 16a baino lehen eman beharko da polikiroldegian bertan (630215 telefonoan).
- **Beti Gazteko**
saskibaloi taldeak ez du nolanahiko liga hasiera egin. Hau idazterakoan bortz partidu jokatu eta bortzak irabazi ditu. Sailkapenaren buruan dago
- **Eskuz binakako pilota txapelketan**
eskualdeko ordezkaritza zabala dago. Retegi II, Errandonea eta Salaberria (aurtengoan bai) ari dira eta lehendabiziko ordezko edo suplente bezala daude Taberna eta Olai-

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## IKASTAROAK

### MUGIRO

**▸ Abenduaren 10, 11, 12, 17 eta 18an** ardo dastatzearen hastapenei buruzko ikastaroa Mugiroko Bentan Plazaolako Konsortzioak antolatua.

## KULTUR EGUNAK

### ITUREN

**▸ Abenduaren 5etik 7ra** Hitzaldiak, bazkari-afariak, erakusketak, bertsolariak... Xehetasunak 18. orrialdean.

## SOLASALDIAK

### DONEZTEBE

**▸ Abenduaren 11n** arratsaldeko 5etan makume elkarteei buruzko solasaldia Malerrekako Mankomunidadean.

## KONTZERTUAK

### ZUGARRAMURDI

**▸ Abenduaren 14an** Zugarramurdiko Azketa frontoian, arratseko 10etan 'Lau Behi' eta 'Tapia ta Leturia Band'. Ondotik dantzaldia 'Irrintzina' taldearekin.

### ITUREN

**▸ Abenduaren 6an** gaueko 11etan 'King Mafrundi' eta 'Marruma' taldeekin kontzertua.

## BASERRIA



**❖ ZERRIKIA ❖**

• **Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.400 pta.
• **Zerri gizena** (95-100): 180pta/kilo
• **Zerramak:** 125-130 pzta./kilo bizirik.



**❖ BEHIKIA ❖**

• **Aretze gizenak:**
• **Idixkoak:** Pzta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 520 |
| 1.koa | 500 |
| 2.koa | 470-480 |

• **Urruxak:** Pzta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 540-530 |
| 1.koa | 520-510 |
| 2.koa | 480 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

• **Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Nabarrak:** urruxak 13.000 eta idixkoak 23.000 Pta.
**Mestizoak:** urruxak 25.000 eta idixkoak 35.000 Pta.
**Behi zaharrak:**
Behi nabar gizena: 330 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 340 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: **EHNE**

## HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

### *'Atxuriatik Larrunerat' Kultur Hilabetea Azkainen, Saran, Beran eta Zugarramurdin*

Larunbat honetan, 2.500 pezeten truke, bertso-txiste afarira joateko aukera ederra dago.
Igandean aldiz, Lamixine BAT (Berako Antzerki Taldea), *Lilien Lilura* antzeslana aurkeztuko du Berako Kultur Etxean. (500 Pta.) arratsaldeko 6etan.
Hurrengo batean, abenduak 14, Zugarramurdiko frontoian gaitzeko kontzertua izanen da, *Lau Behi* eta *Tapia eta Leturia Band* taldeekin martxa segurtatua dago eta.
Afari, antzerki eta musikaz gain mintzaldi franko ere eginen dira 'Atxuriatik Larrunerat' Kultur Hilabetean, guztiak Azkainen.

**Ageri denez, ez dago etxean gelditzeko aitzakirik.**



**OKANE**
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

**ttipi-ttapa Gida 96**
Ez galdu sekulan begi bistatik.
Den-dena eskeintzen dizu!

*Esker Onak • Urtemugak • Eskelak*
Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu **ttipi-ttapa**k eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu. Deitu gure telefonora:
**✆ 63 11 88**

JAKIN BEHARREKOAK

# Kalefakzio-akumuladoreetan sistema desberdinak



**Elektrizidade gauez merkeagoa dela ikusirik, diru dexente aurreztu ahal da akumuladoreak erabiliz; azterketa desberdinen arabera %55a merkeago aterako litzateke argiaren faktura.**

Akumuladoreez lortzen den kalefakzio elektrikoa gauez gauez metatzen da eta bildu duen beroa egunez botatzen du. Modu honetara kontsumitzen den energia, egunez gastatzen duguna baino % 55a guttiago balio du. Honela bada, erraza da ulertzea bertze edozein elektrizidade bidezko sistemekin alderatuz (Eguzki Plakak, oliozko erradiadoreak, termohaizegailuak, e.a.) %55a aurrezten dela.

### Akumuladore mota desberdinak

Bi akumuladore mota daude, aktiboak eta pasiboak. Aktiboak, haize beroa ateratzera behartzeko, barne haizegailu bat izaten dute. Haizegailu hauek nahi dugun tenperaturara egokitzeko termostatu baten bidez gobernatuak daude. Pasiboak baino eragingarriagoak dira, bainan baita zaratatsuagoak ere.
Pasiboak, ordea, haize korronteaz baliatzen dira beroa barnetik ateratzeko. Isiltasuna behar den tokietan paratzeko erabiltzen dira, logeletan, ikasgeletan, e.a.

### Karga eta deskarga sistemak

Hoberena metatze-sistema inteligentea da. Gauez kanpo tenperatura neurtu eta hotzago edo beroago den ikusita, akumuladoreei agintzea 8, 7, 6 orduz edo denbora gutiago metatzeko. Honetarako kanpo sonda bat eta metatze inteligentzi zentrala behar ditugu. Metatze sistema honek helburutzat dauka kanpo tenperaturaren arabera metatze kantidadea egokitzea eta horrela, alperrik ez gastatzea.
Deskarga, erloju baten bitartez kontrola daiteke, beharrezkoak dirn ordutan bakarrik martxan jartzeko aginduz. Termostatoak gela bakoitzean nahi dugun tenperaturara egokituko ditugu.
Sistema hau instalatzeko, etxearen isolamendu eta instalazio elektriko egokia edukitzea behar beharrezkoa da.

BORTZIRIK ESKAINITAKO AHOLKUA (BERA)


BORTZIRI
ASISTENTZIA TEKNIKORAKO ZERBITZUA
Tfnoa: 63 10 91
Iturlandeta, 1 • 31780 BERA

CANAL+
Televés

GAMA ZURIKO ELEKTROGAILUEN SALMENTA ETA KONPONKETA
• Frigorifikoak
• Labadorak
• Kongeladireak...

Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe


## AGENDA EGUNEZ EGUN

### ZINEA

**DONEZTEBE**

**Abenduaren 6, 7 eta 8an** 'Heat'.

**Abenduaren 14 eta 15ean** 'Asesinos'.

**LEITZA**

**Abenduaren 13 eta 15ean** 'Streptease'.

**BERA**

**Abenduaren 8an** arratsaldeko 5etan eta 7,30etan 'Eraser' Kultur Etxean.

### MENDI IRTEERAK

**BAZTAN**

**Abenduaren 8an** Leurtza-Leurtza ibilbidea eginen dute Baztango Mendigoizaleek.

**Abenduaren 15ean** Baztango Mendigoizaleek Artesiaga-Irurita ibilbidea eginen dute: Artesiaga-Sagardoi-Saioa-Olari-Gorospil-Erreka-Kalain-Zigaurre-Irurita.

### GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

**Abenduaren 2tik 8ra** Bera, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

**Abenduaren 9tik 15era** Lesaka, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

**Abenduaren 16tik 22ra** Etxalar, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...**

*Hegoaldetik deitzeko 948-*
*Iparraldetik 00-34-48*
**631188**

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

**HIGIEZINAK SALTZEKO**
101. Etxeak
102. Etxebizitzak
103. Baserriak
104. Txaletak
105. Apartamentuak
106. Merkataritza-lokalak
107. Garajeak
108. Lurrak/orubeak

**HIGIEZINAK EROSTEKO**
111. Etxeak
112. Etxebizitzak
113. Baserriak
114. Txaletak
115. Apartamentuak
116. Merkataritza-lokalak
117. Garajeak
118. Lurrak/orubeak

**ESKUALDATZEAK**
121. Merkataritza-lokalak
122. Bertzelakoak
131. Etxeak

**ERRENTAN HARTZEKO**
132. Etxebizitzak
133. Baserriak
134. Merkataritza-lokalak
135. Lurrak/orubeak
136. Bertzelakoak
141. Etxeak

**ERRENTAN EMATEKO**
142. Etxebizitzak
143. Baserriak
144. Merkataritza-lokalak
145. Lurrak/orubeak
146. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Osasun arlokoak
207. Mendi lanak
208. Gestoriak
209. Garraioak
210. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Saldu
502. Erosi
503. Tailerrak
504. Bertzelakoak

**ANIMALIAK**
601. Saldu
602. Erosi
603. Eman
604. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu/aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak
802. Deialdiak

## HIGIEZINAK SALTZEKO

### 102 ETXEBIZITZAK

**ETXALAR.** Pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, bainua eta trasteroa. Denak kanpoaldera ematen du eta bizitzera sartzeko moduan. ☎ 635146.

**BERA.** Bi solairuko etxea salgai. ☎ 631422.

## HIGIEZINAK SALTZEKO

### 103 BASERRIAK

**DONAMARIA.** Baserria salgai, sotoa, lehen solairua (etxebizitza) eta ganbara. Borda ttiki bat badu berari itxekia eta larraina atarian. 150 m². Bengoetxeako Borda. ☎ 510540.

## HIGIEZINAK SALTZEKO

### 107 GARAJEAK

**BERA.** 19m² ko bajera salgai Burga Plazan. 1.900.000 Pta. ☎ 630155.

## ESKUALDATZEAK

### 121 MERKATARITZA-LOKALAK

**ORONOZ-MUGAIRI.** Oskorri denda eskualdatu edo traspasatu nahi da. ☎ 592245.

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK


**ARANTZA ZURGINDEGIA**
*Jose Miguel Errandonea*
Klase guztietako zurgin lanak
Osiña auzoa ✆ 948-634068 • ARANTZA


**Kartelak,** buzoiratzeko paperak, bisita txartelak, Faktura taloiak... egiten ditugu. ☎ 631188. Bulego orduetan.

## ZERBITZUAK

### 210 BERTZELAKOAK


*Mª Dolores Miñana*
**TOPOGRAFOA**
**NEURKETA - PLANOAK**
*Lur neurketak, Luberriak Plantazioak, etab...*
☎ 580143 - 989.445986
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO


## LANA

### 301 ESKARIAK

**Neska batek** lan eginen luke goizez Baztan-Malerreka aldean. Esperientzia dut haurrekin eta etxeko lanetan ☎ 581265.

**Neska gazte batek** lan eginen luke gauez edo asteburuetan. Haur edo adinekoak zaintzen, jatetxe-sukaldetan laguntzen.... ☎ 580540.

**Kamioi-txofer** lanean aritu-ko nintzateke. ☎ 580540.

**Leitzan** edo inguruan lan egingo nuke. Haurrekin esperientzia daukat. ☎ 510169 (Izaskun).

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

**Emakume bat** behar dugu etxeko lanak egiteko. Iruñean. Jornal ona. ☎ 225945 (Teresa). Deitu arratsaldetan.

## MOTORRA

### 501 SALDU

**Renault 19 RTI 1.8** salgai, NA-AH matrikula eta 35.000 kilometro eginak. Lagunduriko direkzioa eta bertzelako osagarriekin. ☎ 630766 (Jose Mª).

**Rieju 80 motoa** salgai. Egoera oso onean. 100.000





**Bidali** TTIPI-TTAPA **herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

✆ 631188

pezeta. ☎ 635136 (gaueko 10etatik aitzinera).

BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 63 06 23 • BERA

**Montesa Cota 310** trialeko motoa salgai, oso ona. ☎ 514118.

**Citroen ZX** kotxea salgai, gasoilekoa, NA-AF matrikuladuna. Haize egokitua. ☎ 510558.

**Renault Super 5** kotxea salgai. NA-Z matrikuladuna. Egoera onean. ☎ 580022.

**Pegaso Iveco** kamioneta salgai, NA-AF matrikuladuna, gasoilezkoa, 4 urte eta 65.000 km. Abeltzainentzat prestatua. 2.850.000 pta negoziagarriak. ☎ 451518-234830.

MENDAUR MOTOR
✆ 450333 • DONEZTEBE
Suzuki Vitara laburrak eta luzeak, Suzuki Samurai laburra eta luzea.
100.000 Pta. inguruko autoak.

**Ford Escort** 1600 autoa salgai, gasolinazkoa, NA-W. 400.000 pta. ☎ 317238 (5etatik aitzinera, Kontxi).

**Lada Niva** 4x4, gasolinazkoa, salgai, NA-J.150.000 pta. ☎ 317238 (5etatik aitzinera, Kontxi)..

## MOTORRA

### 503 TAILERRAK

Audi SAMPI ARAGON
Bigarren eskuko autoak, Furgonetak eta 'Todo Terrenoak' erosten ditugu
✆ 45 03 54 • DONEZTEBE

## ANIMALIAK

### 601 SALDU

**Husky Siberiar** xakurkumeak salgai, gurasoak laisterka ibiltzen direnak dira. ☎ 450826 edo 908.777621. (Vidal).

**Ardi txakurrak** salgai. ☎ 604624.

**Bi zakur** Pastor Aleman salgai. ☎ 450595.

ALBAITERITZA KLINIKA
Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak
✆ 627660 LESAKA
Txepetxa

**Ahari mutur gorria** eta adarrik gabea salgai. Lau urtekoa ☎ 627569. Igantzi.

**Ahari** muturgorria salgai, 3 urte. Arantzan. ☎ 634170.

**Zezen gorria**, pirinear arrazakoa salgai. Hiru urte terdikoa. ☎ 585068.

**Aker** txuri bat falta de Lesakan. ☎ 627573 (arratsaldetan).

**Urtebeteko zakurra**, Pirinioko Mastin arrazakoa salgai, gorria eta xuria. ☎ 580746.

**Azpiko zaldia** salgai. Haurrendako aproposa. ☎ 450730.

**Zezena** salgai, Blonda arrazakoa (zuria). Lau urtekoa. ☎ 631098.

**Zerri gizena** salgai. ☎ 634067. Arantza.

ERTZILLA
ALBAITARITZA KONTSULTA
Txakur eta katuendako
ORDUTEGIA
10etatik 1etara eta 4etatik 8etara
Larunbatetan 10etatik 1etara
Santiago 30, ✆ 580627
Larrialdiak: ✆ 580762
ELIZONDO

ADOS
INMOBILIARIA AGENTZIA
Julian Izura Nuin

BERA.
- 110 m²ko pisu zoragarria salgai. Kanpoaldekoa.
- Etxe zoragarria salgai.
- Azken duplex berri-berria salgai. AUKERA
- 200 m²ko bajera komertziala salgai.

LESAKA.
- 60 m²ko bajera salgai. Arras prestatua. AUKERA
- Ardotegia salgai.
- Etxe elkarri atxikiak salgai. Familiabakarrekoak.

ETXALAR.
- Pisu bat errentan emateko.
- Etxea egiteko lur eremua salgai.

ELIZONDO.
- Pisu merke bat salgai.
- Pisu berri bat salgai (Braulio Iriarte karrikan).
- 400 m²ko bajera bat eta bertze batzuk salgai.
- Familia bakar eta bi familiendako etxeak salgai.

ORONOZ-MUGAIRI.
- Nabe-pabilioiak salgai.
- Kanpoaldeko pisua salgai. Arras ongi dago.
- Pisu bat errentan eman nahi da. Ongi dago.
- Oskorri liburudenda salgai. AUKERA

LEGASA.
- Pisua salgai. AUKERA

NARBARTE.
- Pisu haundi bat errentan emateko prest.
- Pisu erabilia salgai. Merke.
- Pisua berria salgai. AUKERA

DONAMARIA (IGURIN).
- Txaleta salgai.

DONEZTEBE.
- Pisu batzuk errentan emateko prest.
- Pisu batzuk salgai.
- Ostatu bat errentan emateko prest.
- Baserri bat errentan emateko prest.

ELGORRIAGA.
- Pisu eder eta berria salgai, garajearekin.
- Familia batendako etxea errentan edo salgai.
- Etxe polit bat salgai edo pisu batekin trukatuko.
- Familia batendako etxea salgai.

ITUREN.
- Etxe eder bat bere lur eremuarekin salgai.

ZUBIETA.
- Borda bat errentan eman nahi da.
- Pisu berri batzuk salgai. Finantziazio berezia dute

ERATSUN.
- Baserria salgai.

ARESO.
- Baserria salgai.

PREMIAZKOAK (EROSTEKO)
- Beran edo Lesakan baserri edo etxea.
- Zugarramurdi, Udazubi edo Etxalarren baserri edo etxe bat (25 milioi inguru).

AUKERAK
- Zubietako pisuak 8.250.000 Pta.
- Berako azken duplesa.
- Legasako pisua 7.000.000 Pta. negoziag.
- Narbarteko pisua
- Igurineko txaleta
- Elizondoko unifamiliar eta bifamiliarrak
- Lesakako bajera 7.000.000 Pta.

Modu askotako kontratuak egiten ditugu eta baita lege-arazoak konpondu ere.
Badugu abokatua. Deiguzu konpromezurik gabe.

Telefonoak: 451841 / 908.778653 • Parrokia, 5-2. ezk. • DONEZTEBE

## DENETARIK

### 701 GALDU/AURKITUAK

**Lauburu** bat duen **giltzaria** aurkitu da giltza batekin Lesakako Gazte Egunean kontzertua egin zen parkean. Jabeak giltzaria berreskuratzeko Lesakako Arranora dei dezake. ☎ 948-627597. Arratsaldez astearteik igandera.

**Berako kanposantuan** zilarrezko hortz-postizoak aurkitu ditugu Domisaindu egunean. ☎ 630722.

**Motxila**, laranja kolorekoa galdu da Beran. ☎ 630789.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**Balostra balkoi** eta **eskaleretako mazizoak**, bordadorak ateriak salgai. ☎ 635188 (eguerditan, 1,30etatik 2,30etara).

**Eguberrietako pinuak** salgai, aukeran, 1.000 pezetatan. ☎ 637810 (Patxi).

**Telebista salgai**, Grundig 25 pulgadakoa, kanale frantsesekin. ☎ 637217.

## DENETARIK

### 703 BERTZELAKOAK

**IRUÑEA.** Neska bat behar da pisua osatzeko unibertsitatearen ondoan. ☎ 241369 (eguerditan edo gaueko 9etatik aitzinera).

**IRUÑEA.** Neska bat behar da pisua osatzeko. ☎ 231469 (Ainhoa). Eguerditan edo gaueko 9etatik ai-

# URTEBETETZEAK

**Sail hau dohanekoa da.**
**Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara**

**ttipi-ttapa**
Urtebetetzeak Sailerako
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA



**Oihana Aranburu Zelaieta** leitzarrak 9 urte beteko ditu abenduaren 11n. Zorionak aita, ama eta Anderen partez.



**Xabi Maritxalar Errandonea** lesakarrak 8 urte beteko ditu abenduaren 8an. Zorionak eta aunitz urtez, morrosko!



**Raquel Fagoaga Etxarte** lesakarrak 8 urte beteko ditu abenduaren 13an. Zorionak familiaren partez.



**Garazi Urreaga Otxoteko** burlatarrak 3 urte bete ditu azaroaren 28an. Zorionak 'coqueta'.



**Xabier Fagoaga Maia** lesakarrak 9 urte bete ditu abenduaren 3an. Zorionak zure familiaren partez.



**Kontxi Almandoz Aierza** igantziarrak 12 urte beteko ditu abenduaren 6an. Zorionak!



**Itxasne Otxoteko Abuin** lesakarrak 6 urte beteko ditu abenduaren 14an. Zorionak J.O.A.B.A. eta Amaiaren partez.



**Maite Sanz Ganboa** beratarrak 43 urte beteko ditu abenduaren 4an. Zorionak Jose Mari eta Jaione iloben eta Jone alabaren partez.



**Jose Mari Etxabe Sanz** beratarrak 5 urte beteko ditu abenduaren 7an. Zorionak guraso eta arrebaren partez.



**Titino Etxabe Ladera** zuamurdiarrak 33 urte bete ditu abenduaren 3an. Zorionak Jose Mari eta Jaione iloben partez.



**Oihan Zabaleta Berra** lesakarrak 7 urte beteko ditu abenduaren 22an. Zorionak guraso eta lagunen partez.



**Gorka Altzuarte Arregi** almandoztarrak azaroaren 28an 4 urte bete ditu. Zorionak guraso eta anaiaren partez.



**Olaia Salgado Liberal** Abenduaren 1ean bete ditu 5 urte. Zorionak.



**Beñat Txoperena Matxikote** igantziarrak abenduaren 8an 5 urte beteko ditu. Aunitz urtez Oihana, ama eta attaren partetik.



**Martina Baleztena Mitxeo** doneztebarrak 49 urte beteko ditu abenduaren 8an. Zorionak senar eta seme-alaben partetik. Besarkada bat.



**Iñigo Apezetxea Iparagirre** aranaztarrak 10 urte bete ditu abenduaren 2an. Zorionak aita, ama eta Asierren partez. Muxu haundi bat.



**Javier Zelaieta Aramendi** beratarrak azaroaren 28an bete ditu 44 urte. Zorionak bere lankideen partez.



**Laurendi Zelaieta Fernandez** elgorriarrak abenduaren 9an urte bat beteko du. Zorionak aita, ama, Ugutz eta Garaileren partez.



**Oihana Aranburu Zelaieta** leitzarrak 9 urte beteko ditu abenduaren 11n. Zorionak Ugutz, Garaile eta Laurendiren partez. Muxu bat.



**Maite Apezetxea Mutuberria** goizuetarrak 13 urte beteko ditu abenduaren 9an. Zorionak bere familia eta atautxi-amautxien partez.



**Arkaitz Oiartzabal Rodriguez** goizuetarrak 9 urte bete ditu azaroaren 30ean. Zorionak.



**Anthoni Etxarte Perez** Dixongoak (California) 9 urte bete ditu azaroaren 17an. Zorionak Igantziko familiaren partez.



**Xabier Etxarte Mikelestorena** etxalartarrak azaroaren 19an 7 urte bete ditu. Zorionak Igantzi eta Etxalarko familiaren partez.



**Nerea Bertiz Etxarte** igantziarrak 5 urte beteko ditu abenduaren 8an. Zorionak familiaren partez eta muxu haundi bat Pottoki.



**Asier Garcia Oharriz** beratarrak abenduaren 8an 3 urte beteko ditu. Zorionak lehengusu-lehengusin eta osaba-izeben partez.



**Iñaki Irazoki Oharriz** beratarrak abenduaren 10ean 17 urte beteko ditu. Zorionak guraso eta familia osoaren partez.



**Eva Danboriena** berroetarrak abenduaren 9an eginen ditu 22 urte. Zorionak Zugarramurdi eta Amaiurko lagunen partez.



**Estitxu Pinatxo Olaziregi** beratarrak abenduaren 11n beteko ditu 9 urte. Aunitz urtez!



**Itziar Lujanbio** goizuetarrak azaroaren 24an bete ditu 11 urte. Zorionak zure lagunen partez.



**Ander Abuin Yepes** lesakarrak 3 urte abenduaren 31n. Zorionak A.B.O.J.I. eta Amaiaren partez.

*Bidaltzen dituzuen argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.*

**RUÑEA.** Neska bat behar da pisua osatzeko unibertsitatearen ondoan. ☎ 241369 (eguerditan edo gaueko 9etatik aitzinera).

**IRUÑEA.** Pertsona bat behar da pisua osatzeko Alde Zaharrean. ☎ 220830.

**IRUÑEA.** Bi neska behar dira pisua osatzeko NUP ondoan. Cipriano Olaso, 8-4. B

## HARREMANAK

## 801 AGURRAK

**Nahia Semper**, Nerekin atera nahi duzu?. J.M.

**Narbarteko** Katixa Oteizari: zorionak, azaroaren 25ean berendu goxoa prestatuko duzu. Narbarteko lagunak.

**Agur bat** Doneztebeko Lorenarentzat.

**Sonia**, zutaz maitemindu-ta nago. Lehengo egunean eskatu zizun mutilaren partez.

# JVAN LARREGI

B I T X O

Santiago karrika, 10 • ✆ 58 08 98 • ELIZONDO

## NEGUKO PROMOZIOA

**Husqvarna motozerretan**

Mod.36..........................43.200 pta.
Mod.45..........................59.700 pta.
Mod.55..........................78.000 pta.
Mod.61..........................87.700 pta.
Mod.268......................114.960 pta.
Mod.272......................117.960 pta.
Mod.281......................138.960 pta.
Elektrikoa.......................33.984 pta.

**Kate bat erregalo**




**STIHL eta JONSERED motozerrak**



# Eguberrietako *erosketak eta opariak* hemen egiteagatik,

## sariren bat irabaz dezakezu

**Adi egon Xorroxin eta Cope irratietan eginen diren lehiaketekin. Egunero, abenduaren 9tik urtarrilaren 6a bitarte opari onak emanen dira. Kanpainaren bukaeran, 20.000 Pta.ko baleak zozketatuko dira (3 bale irrati bakoitzean). Horretarako, entzuleak asmatu egin beharko du zein komertziotan dauden gordeak Olentzeroak. Animo! Sariren bat zurea izaten ahal da.**



**ARIZKUN**
- Licores Baztan. ....... ✆ 45 34 10

**BERA**
- Antzuzelai harri lanak. .✆ 63 13 17
- Goiko argazkidenda. ...✆ 63 05 15
- Igone papertegia. .....✆ 63 06 26
- Mª Luz Sport. .......✆ 63 0483

**DANTXARINEA**
- Zubiondoa Benta. .....✆ 59 91 80

**DONEZTEBE**
- Arin Zerbitzuak. ......✆ 45 02 66
- Elkar asesoria. .......✆ 45 16 10
- Amaya Estetika Zentrua. ✆ 45 01 63
- Beatriz Estetika Zentrua. ✆ 45 09 22
- Alustiza Lurrindegia. ...✆ 45 01 13
- Ruiz Okindegia. .......✆ 45 00 37
- Daniel Elortza Haragia. ✆ 45 00 40
- Luis Martin Harategia. .✆ 45 01 60
- Irigoien Arraindegia. ...✆ 45 01 40
- Sorozabal Gozotegia. ...✆ 45 00 87
- Itxaso Arraindegia. ....✆ 45 02 30
- Picabea Boutique. .....✆ 45 02 07
- Ibarrola Arropadenda. ..✆ 45 04 63
- Mari Cruz Lentzeria. ...✆ 45 01 12
- Maylin Sport. ........✆ 45 02 57
- Saioa Boutique. .......✆ 45 17 04
- Titare Arropak. .......✆ 45 08 83
- CTV Albaitaritza. ......✆ 45 05 91
- Casa Ostiz. ..........✆ 45 02 89
- Mendia Botika. .......✆ 45 00 92
- Belen Loredenda. ......✆ 45 17 58
- Mena Argazkiak. ......✆ 45 08 25
- Zaldua Argazkiak. .....✆ 45 03 64
- Ezkalo. .............✆ 45 15 18
- Telletxea Mobleak. .....✆ 45 02 58
- Sampi Aragon Tailerra. .✆ 45 03 54

**ELIZONDO**
- Elkar Autoeskola. .....✆ 58 00 77
- Zunzarren Artekaritza. .✆ 45 22 93
- Esarte Harategia. .....✆ 58 01 28
- Ruiz Etxea. ..........✆ 58 07 67
- Natura Etxea. ........✆ 58 02 03
- Malkorra Goxotegia. ...✆ 58 00 61
- Itziar Arraindegia. .....✆ 45 23 49
- Virgilio Oinetakoak. ....✆ 58 02 09
- Confecciones Belzunegi. .✆ 58 00 56
- Iparla Kirolak. .......✆ 58 05 85
- Ipingi Arropadenda. ....✆ 58 09 39
- Maite Lentzeria. ......✆ 45 24 36
- Beatriz Lurrindegia. ...✆ 58 02 83
- Estanco R. Echegoyen. ..✆ 58 02 19
- Baztan Ferreteria. .....✆ 58 04 23
- Quevedo Ferreteria. ....✆ 58 02 34
- Mena Argazkiak. ......✆ 58 01 55
- Zaldua Argazkiak. .....✆ 58 04 91
- Nafarpress. .........✆ 58 09 02
- Arrieta Erlojudenda. ...✆ 58 04 45

**ETXALAR**
- Ansalas Janaridenda. ..✆ 63 50 70
- Herriko Denda. .......✆ 63 50 17

**LEKAROZ**
- Kiwi Baztan. .........✆ 58 11 01

**LESAKA**
- Maritxalar Arropadenda. ✆ 63 70 80
- Telletxea. ...........✆ 63 72 81
- Ibaiondo Janaridenda. ..✆ 63 77 86
- Legarra Liburudenda. ..✆ 63 70 30

**NARBARTE**
- Consuelo Janaridenda. ..✆ 59 21 14

**ORONOZ**
- Oskorri Liburudenda. ...✆ 59 22 45
- Ustarroz Okindegia. ....✆ 59 20 56

**SUNBILLA**
- Marisol Janaridenda. ...✆ 45 06 08

BERTIZ
PARTZUERGO TURISTIKOA
CONSORCIO TURISTICO

**MERKATAL ELKARTEA**
Tfnoa.: 59 23 23